

Bergarako Orfeoia

Musika Eskolarekin abestu zuen zapatuan
KULTURA, 20-21



Javier Iriarte nagusitu zen Antzuolan

Gurutz Larrea ziklista bosgarren helmugaratu zen (3:07:34)
KIROLA, 12-13

Aukeran dantza taldea

'Bideak' ikuskizuna estreinatuko du
KULTURA, 23



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko uztailaren 10a • 3. urtea • 109. zenbakia • 0,90 euro



JOSETXO ARANTZABAL

Eskailera eta guzti behar izan zuten zapatuan Gesaltzako kobazulora sartu ahal izateko.

Natura ibilbideak Oñatin barrena

Astebururo egingo dituzte, abuztuaren 13ra bitartean 4

ZAZPI IBILBIDE
Oñatiren ingurunea ezagutzera emateko zazpi ibilbide ezberdin antolatuta dituzte Natur Eskolak eta Turismo Bulegoak

ASTE BARRUAN ERE BAI
Astegunetan nahi izanez gero ere eska daitezke ibilaldiok; izena emateko Turismo Bulegora jo besterik ez dago

Gidarien zaindariaren eguna gaur

Autoak bedekintatuko dituzte Bergarako San Kristobalen 7

Bilkurak gaur Antzuolan eta Elgetan

Bi langileren kanporatzea salatuko dute herriotan 9

Hasi dira Bergaran Gabiria dorretxea birgaitzen 6

Eskoriatza, Antzuola eta Aretxabaleta garaile Debarrokoan

Eskoriatza, Antzuola eta Aretxabaletako bikoteek irabazi zituzten Debarroko pilota txapelketako finalak atzo.

Kadete mailan Oiartzabal eta Agiriano eskoriatzarrek 22-13 irabazi zieten Zubizarreta eta Bolinaga arrasatearrei. Antzuolako bikoteak irabazi zuen gazteen finala. Mendizabal eta Azkaratek 22-16 mendean hartu zuten Elgoibarko bikotea. Eta senior mailan, Errasti Anaiak 22-18 nagusitu zitzairen Axpe eta Uribarreni; seigarren txapela jantzi zuten aretxabaletarrek. 16-17

Ugarrixa beteranoetan txapeldun

Ipintzako futbol liga eta kopako finalak barikuan jokatuko dira 14


Ford Focus Trend 1.6 100zp
13.000€-gatik

Atzeko suspentsioan Blade kontrola
Abiadura kontrola
Biztza aire-girogailuarekin
Ordenagailua
Larruzko bolantea
Irati CDA

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

GEUREAN

- Hainbat lagunek egin zuten igeri atzo esklerosi anizkoitzaren kontra | 8
- Geltoki zaharra egokituko du Eskoriatzako Udalak gazteendako | 7



Xabier Arregi
filosofoarekin idatzi
duen azkeneko
liburuaz berba
egin dugu | 5

IBARREKO ABELTZAINEN URTEKO BATZARRA



JON BEREZIBAR

Kideen aldetik erantzun hotza izan zuen batzar orokorrerako deialdiak.

DEBAGEL | URTEKO BATZARRA EGIN ZUTEN ATZO DEBAGOIENENKO ABELTZAINEN ELKARTEKOEK

Ekografo batekin osatu dituzte aurten abeltzainendako zerbitzuak

Iazko kontuak onartu zituzten atzo egindako batzar orokorrean. 2005. urteko inbertsio nagusia ekografoa izan da eta dagoeneko abeltzainak hasiak dira lehen probak egiten

Jon Berezibar

Domekan Bergarako Miguel Altuna institutuan egindako batzarrean 2005eko kontuak onartu eta joandako urteko ekitaldiari gainbegiratu egin zioten Debagelekoek, Debagoieneko abeltzainen elkartekoei. Domeka eguerdian zeukaten hitzordua ibarreko ia 500 abeltzainek baina batzarrera hogeitatu agertu ziren. Albaitariaren zerbitzua koordinatzen arduratzen da Debagel elkarteak nagusiki eta horren inguruko kontuak eztabaidatu zituzten. Urteroko batzarrera da atzo egindakoa eta joan den jardunaldiko kontuak onartu eta elkartearen lanaren berri eman zuten Debageleko ordezkariak.

Hala, bestelako gertakari barik onartu zuten 2005. urteari dagoen akta. Bazkide guztiak hartzeko bi txanda antolatuta bazi-

tuzten ere, agertutako kopuru txikia dela eta 12etako deialdian itxi zituzten kontuak eta galderen tartea.

EKOGRAFOA MARTXAN

Ekografo bat erosi dute aurten Debagelekoek, bazkide guztiak dagoeneko erabilgarri dutena. Hori izan da urteko gastu nagusia eta, hein handi baten, batzarraren zutabe nagusietako bat izan zena. 4.000 euroko inbertsioa izan da eta lehenengo frogak egiten dabilta orain, emaitzen zain. Galdera eta eskaeren tartean ere zalantza gehien piztu zuen makina berriaren erabilpenak, erabiltzen ikasi beharra zegoela azpimarratu zuten eta askok.

Ekografoaren kontuak eztabaidatu aurretik urteko kontuen gorabeherak aipatu zituzten. Horrela, agertu zuten Foru Aldundiko dirulaguntzek bere

Kideak eta inskribatutako ganadua

	BAZKIDEAK	ABEREA	ARDIAK
HERRIA		BEHIAK	
Antzuola	31	139	590
Aretxabaleta	40	295	145
Arrasate	49	167	463
Bergara	100	666	552
Elgeta	13	62	87
Eskoriatza	64	388	1.799
Gatzaga	16	67	587
Oñati	143	547	1.237
Guztira	456	2.358	5.460

IBARREKO ABELTZAINEN URTEKO BATZARRA

horretan jarraituko zutela, hitzarmena beste urtebetez luzatzea lortu zuten-eta. Hala, tarifari urte bakoitzeko igoera aplikatuta 2005. urteko kuota 793,56 eurokoa izatea adostu zuten abeltzainek batzarrean. Era berean, albitariaren kuotak gora egin zuela ere agertu zuten Debageleko arduradunek.

Elkartearen eta bazkideen beharrei dagokienez, gogorazi zuten ugaltze kontrolerako txartelak betetzen jarraitu behar zutela. Izan ere, urte amaieran albitariak informazioa jasotzeko beharko zituztela abisatu zuten. Amaitzeko hiru kargu berriak izendatu zituzten. Hala, 2006ko jardunaldirako Aretxabaletako Ander Arenatza (lehendakari moduan), Eskoriatzako Josu Zugasti eta Antzuolako Jesus Odriozola abeltzainak arduratuko dira Debageleko elkar-tea kudeatzeaz. Ekitaldia amai-

tzeko Giokela eta Euskolabelek emandako hiru okela sorta zozkatu zituzten batzarrerara joandako kideen artean.

ERRONKA BERRIAK

2005. urteko kontuak onartuta, oraindik etorkizunerako planak egiteko daudela komentatu zuen Imanol Letek, domekara arte, hain zuzen ere, Debageleko lehendakari izan zenak. Egun behiak edota ardiak dituzten 456 abeltzain daude inskribatuta elkartean, baina kopuru horrek, animalienak bezala, behera egiten jarraitzen du urterik urte. Debagen betebeharrak nagusia albitaritzaren zerbitzuen koordinaketa bada ere, sektorearen beherakadak zuzenean eragiten die haiei ere, Letek aitortu bezala. Horren aurrean ekintza zehatzik egiteko asmorik ez badaukate ere, elkartean aztertzen dabilzan gaia dela dio lehendakari ohiak.

IMANOL LETE | ABELTZAINA

"Abeltzain kopuruak beherantz jarraitzen du"

J. B.

2005. urtean Debageleko abeltzainen elkarteko lehendakari lanetan ibili da Imanol Lete abeltzain antzuolarra. Urteko errepasoa egin zuten atzo.

Zertan oinarritzen da Debagen lana?

Oro har, ibarreko abeltzainei ematen die zerbitzua Debageleko; albitari zerbitzua koordinatzen da elkartetik. Debagoienean hiru albitariarekin egiten dugu lan eta zerbitzu hori antolatu egiten dugu, albitari eta baserriaren artean. Gure lanaren zatirik handiena da hori, bitartekaritza, abeltzainek ze behar dituzten esan, eta haien eskaerekin albitariengana jotzen dugu guk.

Urteko akta onartu eta balantzea egin duzue; zer izan da azpimarragarria aurten?

Azken urteetan diru kontuetan gorabeherak izan ditugu eta horren ingurukoak jaso ditugu ze azkenean, dirulaguntzekin eta abar gaia zertxobait zuzentzea lortu dugu. Hori diru kontuei dagokienez, Aldundiaren laguntza jaso dugu-eta. Harreman nahiko onak ditugu erakundeekin eta orain arte arazo barik jaso ditugu laguntzak, ondo portatzen dira gurekin eta horrela segi dezala urte askorako. Zerbitzuei dagokienez, aurten ganaduari dagokien eko-grafoa ekarri dugu eta hori izan da elkartearen inbertsio nagusia eta bileran ere azpimarratu duguna. Dagoeneko erabilgarri daukagu eko-grafoa eta hasi gara lehen probak egiten. Ze emaitza ematen dituen zain gaude.

Datorren urteari begira nondik joko duzuen badakizue?

Oraindik ez gara hasi datorren urtean pentsatzen, nobedaderen bat azalduko da.

Abeltzaintzan zein da aurrean daukazuen erronkarik handiena?

Gehienbat ikusten da jarduera bera behera doala eta hori



JON BEREZIBAR

"Bitartekaritza lana egiten dugu guk. Hiru albitari daukagu ibarrean eta zerbitzu hori koordinatzen saiatzen gara"

"Abeltzaintzak behera egin du eta horrek ere elkartearen lanean eragiten du, behar gutxiago dago"

da uneotan gehien eragiten duen gaia. Bai baserriak zein ganadua gero eta gutxiago daude eta horri zelan erantzun behar zaion ere ikusi behar da. Abeltzaintza lotura handiko jarduera izanda, ez da hain erraza beherakada horri erantzun azkarra ematea, egoera oso berezia da-eta. Hala ere, elkar-te moduan gure lana albitariaren zerbitzua kudeatzea da eta ez bestelako ekintzetan sartzea. Egia da ganadu kopuruaren jaitsierak ere gure jardunari berdinduz eragiten diola, ze gero eta ganadu gutxiagorekin eta abeltzainen kopuruak ere beherantz eginda, gure lana gutxitu egiten baita, eta dena soka bat da; sektore osoan eragiten du horrek, zalantza barik.

Hiru albitariaren zerbitzua koordinatzen du elkar-teak

Ekografoa izan da azken inbertsio nagusia; 4.000 euro balio zuen makinak

599 bazkide baditu ere, kopuruak behera egiten segitzen du; aberenak ere

Aurten ere Foru Aldundiarekin duten hitzarmena luzatzea lortu dute Debagelekoek

Oñatiko hiltegiaren kaltetuak izan direnendako oharra

Hiltegia Bizirik Plataformak eta Deba Garaia Mendi Nekazaritzak ondokoa jakinarazi nahi diete Oñatiko hiltegiaren kaltetuei:

Ekainaren 16an gertatutako ezbeharraren ondoren, Mankomunitateak erabiltzaileei kalteen balorazioa egiteko eskatu zien. Bertan, uztailaren 4ra arteko epea ematen zen egin nahi zituzten alegazioak egiteko. Bada, gutuna zertifikatu gabe eta firmatu gabe bidali dute. Mankomunitateak adierazi digutenez, gutunak berriro bidali dituzte, zertifikatuta oraingoan. Karta jasotzen den datatik erreklamazioak egiteko zazpi eguneko epea egongo dela adierazi digute.

Hortaz, kaltetua bazara eta Debagoieneko Mankomunitateak egindako balorazioarekin ez bazaude ados, Hiltegia Bizirik Plataformatik jarri dugun abokatuarengana jo dezakezu. Horretarako deitu ondorengo telefonora: 943 76 21 71 (Amaia). Fax zenbakia: 943 76 15 50.



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa



Telleria 23, D5 pabilioia
Labegarieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44 • www.iparproject.com



NATURA IBILBIDEAK | UDARAKO ESKAINTZA ANTOLATU DUTE NATUR ESKOLAK ETA TURISMO BULEGOAK

Oñati aldeko paisaia karstikoan murgiltzeko aukera ederra

Zapatuan Arantzazu erreka eta Gesaltza eta Iritegi kobazuloak ezagutzeko ibilbidea egin zuten

Zazpi ibilbide antolatu dituzte eta abuztuaren 13ra arte, astebururo egingo dute ibilaldietako bat edo bi

Goreti Elortza

Zapatuan goizeko 9etan hamabi lagun elkartu ginen Oñatiko turismo bulego parean Natur Eskolakoekin. Miren eta Borja Natur Eskolako kideek ibilaldiaren nondik norakoak azaldu, eta autoz joan ginen Arantzazuko bidean dagoen Kortakogaineraino, harrobi ondoko bidegurutzearino, hain justu. Han hasi zen 5,5 kilometroko ibilaldia.

Handik Gesaltza kobazulo-rako bidea hartu genuen. Bidegarietako paisaia karstikoari buruz hitz egin ziguten eta Euskal Herriaren lehengo egoeraz jardun zuten. Segidan, kobazuloa sartu ginen.

HAREHARRIA-KAREHARRIA

Han, uraren indarrak sortzen duen higaduraren lekuko izan ginen eta kareharriaren eta hareharriaren inguruko xehetasu-

nak azaldu zizkiguten. Borjak kareharria eta hareharria eskue-tan hartu eta azido klorhidrikoa erabilia harrien nolakotasuna erakutsi zigun. Izan ere, hareaz osatutako hareharriak higadura mekanikoa jasaten du, hau da, borobildu egiten da. Kareharriak, ordea, higadura kimikoa jasaten du eta ondorioz, disolbatu egiten da. Horrela, milaka urteren poderioz ingurune karstikoa ikusgarria da oso. Kobazuloak bost pisu dituela azaldu ziguten. Gu hirugarrenetik bigarrenera igo ginen. Hirugarren pisua aktiboa da urtean 60-80 egunetan.

Gidariaren esanetan, Gesaltza kobazuloak Arrikruz kobazulo-arekin bat egiten duela frogatu zen 1990. urtearen inguruan. Geroztik, 14 kilometroko sistema osatzen dute, Gipuzkoako handiena. Bigarren pisuan estalagmita, estalagmita, jentilen lapi-koak eta fosilak ikusi genituen.



IDOIA ETXEBARRIA

Natur Eskolako kideek primeran azaldu zizkiguten ibilbideko leku aipagarrienak.

Ondoren, Sorginen errekan gora, Errege bidetik jarraitu genuen. Hamaiketako egin eta Iritegi kobazuloa igo ginen. Han, Bron-

tze Aroko lanabesak aurkitu izan dira eta Gipuzkoako saguzar kolonia handiena dago. Horren harira, sartu aurretik, Mirenek argi

utzi zuen saguzarrak ilera etortzen direla gezurra dela.

ASTEBURU ETA ASTEGUNETAN Natur Eskolak eta turismo bulegoak laugarren urtez dihardute horrelako ibilaldiak eskaintzen. Gehienak asteburuetan egiten badira ere, badago astean zehar egiteko aukera. Horretarako Oñatiko Turismo bulegora jo (943 78 34 53eta eskaria egitea besterik ez dago.

Urak eragindako higadurak paisaia karstiko ederra utzi digu Oñati inguruan

Brontze Aroko lanabesak aurkitu zituzten Iritegi kobazuloan

Egutegia

UZTAILAK 15

• **Mitogia eta Historiaurrea:** Aizkirri kobazuloa, Jentilen pasealekua, Sorginerreka...

UZTAILAK 16

• **Degurixa:** Urak moldatutako paisaia karstikoa, dolinak, mendiko larreak, artzaintza...

UZTAILAK 22

• **Basoa eta ikazkintza:** Basoko landaretza eta fauna, ikazkinen bizimodua, txondor plazak...

UZTAILAK 23

• **Mendiko larreak eta artzaintza:** Aizkorri mendikate magaleko artzaintza-guneak, megalitoak...

UZTAILAK 29

• **Araotzeko auzuneak:** Baserri giroko eraikuntzak, ilorrak, karobiak, puxeta-lekuak, erlategiak...

UZTAILAK 30

• **Arantzazuko erreka eta kobazuloak:** Nekazal ingurua, iturburuak, ur-zuloak, dolinak...

ABUZTUAK 5

• **Basoa eta ikazkintza.**

ABUZTUAK 6

• **Uraren ibilbidea.**

ABUZTUAK 12

Mitologia eta Historiaurrea.

ABUZTUAK 13

• **Degurixa.**

• IBILALDIRA ANIMATUTAKO EK DIOTE



BORJA | DURANGO

Azken hiru urteotan dihardu Borjak Natur Eskolan. "Hasieran udan bakarrik egiten nuen lan, baina aurten, urte guztian zehar aritu naiz. Ibilaldiak egiten diren laugarren urtea da hau. Gustura nabil, ederra da jendeari honelako parajeak erakustea".



BEÑAT | OÑATI

10 urteko oñatiar hau askotan animatzen da Natur Eskolako irteeratarara. "Oso ondo pasatu dut. Erreka gustatu zait gehien, baina ez naiz bainatu... Datorren ibilaldietara ere etortzeko asmoa badaukat behintzat", esan zigun amarekin etorri zen gatzetxoak.



MARI JOSE | OÑATI

"Urtero etortzen naiz ibilaldietara, ingurua ezagutzeko aukera ezin hobea iruditzen zait. Errepikatu ere egin ditut gustukoena". Ibilaldi bakarra falta du guztiak ezagutzeko eta denbora izanez gero azkar asko animatuko dela adierazi zuen.

'Herria', 'hiria', 'nazioa' eta halako kontzeptuei buruz egiten du hausnar Xabier Arregi Oñatiko filosofoak azken liburuan. Pamielarekin argitaratua, azken

urteetan ideia horien inguruan egindako interpretazio maltzur eta interesatuak gezurtatu gura ditu. Greziatik hasi eta Rousseau edo Kantekin, gaur eguneraino

Habermasen amaitu arte. Botereak mendetan aipatutako kontzeptuen bitartez haren burua zelan justifikatu duen aztertu du Xabier Arregik.

XABIER ARREGI | IDAZLEA

"Hiritartasuna ez da kontzeptu garbia ; ezarria da, eta bereizlea"

Jon Berezibar

Hiritartasuna eta halako hitz eta kontzeptuen bidez legitimatzen ei da agintea.


Gizarte antolatu guztiek badaukate halako premia bat agintea justifikatu beharrekoa. Horrekin sortzen dute, oro har, ideologia moduan definitu izan dena. Gaurko gizartean badaude kontzeptu batzuk ematen dutenak ideologia horren barruan oso garbiak direla; *hiritarra* izatearena, esaterako. *Hiritar izatea* kontzeptuak berak inolako orbanik ez duela ematen du. Nik nire lanean atzera jotzen dut eta esaten dut ez dela gaurkoa. Alde batetik, bazterketa modua izan da –beste bat– eta boterea indartzeko aitzakia izan da, hain zuzen ere. Gaur egun ere hala erabiltzen dela uste dut: botereak hiritarra sortzen du eta hark hiritarra bere boterea justifikatzeko.

Eta zer da hiritartasunak baztertzen duen hori?

Jatorriz, Medea pertsonaia hartzen dut liburuan hori azaltzeko, polisaren barruan. Medea da atzerritarra, emakumea, anaia hil duena, familiari eta herriari traizio eginez eta Greziara heldu eta esaten diote legearen pean bizi dela. Baina polisean denak ez dira hiritarrak, emakumeak eta atzerritarrak ez dira hiritarrak, eta arazoak dituzte. Orduan esaten da hiritar guztiak berdina direla, baina hori hiritarra izanez gero bakarrik... Hiritartasunaren aitzakiatan ukatzen da *ethnosa* eta inposatzen dira, era berean, hiritartasuna aitzakiatzat hartuta, beste hizkuntza eta *ethnos* batzuk. Hala erakusten da hiritartasun ideia hori ez dela hain garbia, ze, azken finean, estatuak definitzen baitu hiritartasuna. *Munduko hiritarra* esaten da, baina hori ez da existitzen, ze estatu baten edo bestearen hiritar bakarrik baitzara.

Hortaz, hiritartasuna estatuarekin eta herritartasuna nazioarekin lotzea egokia izan daiteke kasu honetan?

Liburuaren amaieran *herri-tartasun biltzailea* kontzeptua ekartzen dut. Hor, baina, hizkuntza arazo bat dago, filosofian sarri gertatu ohi dena. Inguruko erdal hizkuntzetan, *citoyen*, *ciudadano* edo *citizen* esatean, hiri berbatik eratortzen dira, baina herritik ezin duzu esan *pueblo-rino*. Euskaraz badago aukera bereizketa horiek egiteko, baina, bestela, *ciudadano* hori kontra-



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Arregiren bigarren liburua da *Herria, hiria, nazioa*.

jarri egiten da baserriarrarekin, landa-inguruneakoa mespretxatu egiten da. Denok hiritarrak garela esan eta baserriarra gutxiagotu egiten da. Horregatik dator herritartasun biltzailearen kontua; azken batean, Euskal Herrian gehiago erabiltzen dugu herritar kontzeptua eta bil ditzake hiritartasunaren ekarpena eta baita ere *ethnosaren* aldarrikapenak, etno-hizkun-

tzaren aldarrikapenekin bat etorri. Hiritarra izatea etno-hizkuntzaren identitatearen aldarrikapenekin kontrajartzen da sarri, baina elkarrekin bil ditezke.

Eta herritartasun horretatik ere erator daiteke nazio kontzeptua?

Hiritartasunaren ideia berreskuratzen da Europar eta Ingalaterran, Elizaren boterea zilegiztatu egin behar denean.

Botereak hiritarra sortzen du eta gero erabili haren boterea zilegi bilakatzeko

Herritartasunak bil ditzake hiritartasunaren ekarpenak eta etno-identitatea

Hiritartasuna aitzakiatzat hartuta beste etnos eta hizkuntza bat ezartzen dira

Hiritartasunak, etnizismoak moduan, bertakoak eta kanpokoak bereizteko balio du

Legitimazio politikoa orduan Elizak ematen zuen eta erregeak bere burua justifikatu egin behar zuen, baina ez du kontuan hartzen haren azpian geratu ziren gizatalde ezberdinak. Nik kritika aspektu horri egiten diot, hiritartasuna ez delako hain garbia, baduelako bere zama. Gaur egun ezin da ukatu kontzeptu hori, baina bai erabili kontrajarri barik etno-hizkuntzako identitatearen aldarrikapenarekin. Etno-hizkuntzako legitimotasuna zergatik ez den egongo ere galdetzen dut, antolaera politiko baterako.

Talde eskubideak ere horren araber aitoru beharko lirateke?

Oso gauza zabala da. Emakumearen eskubideez hitz egin daiteke, ze haien eskubide bat ez baita gizonezko batena; esate baterako, abortatzeko eskubidea. Badaude hainbat gizatalde errekonozitzen direnak eta identitate talde horien artean badaude etno-identitatezkoak ere. Hori errekonozitu egin beharko litza-tekeela diot antolaera politiko legitimo baterako.

Egoera zehatz batzuetan erabili izan ditu aipatutako kontzeptuok agintea boterea justifikatzeko?

Ideologia batzuek batzuetan linbo semantiko bat behar izaten dute, botere egitura baten barruan guztiz garbiak izan behar duten hitzekin. Hiritartasunak gaur egun balio du bertakoa eta kanpokoak banatzeko. Etnizismoak hitz egiteko bertako eta kanpokoaren arteko banaketaz hitz egiten da eta hiritartasunak berdinean egiten du Estatutik abiatuta. Diskriminatzailea da eta ezartzailea ere bai, derrigorrezko hizkuntzeekin, muga ekonomikoekin... Hori guztia ezarria da, eta orduan saihestezina izango litzateke hori. Gaur egun ez da klase sozialaz berba egiten edo pertsonari buruz, *hiritarrak* esaten da, subjektu politiko modura errekonozituak izateko modu bakarria izango balitz bezala. Kontzeptu hori, gainera, mundu guztiak egin du berea eta bestelakorik esateko beldurra dagoela ematen du, ez da zalantzan jartzen.



JOSETXO ARANTZABAL

Lanak handienak etxearen barruko aldean egingo dituzte. Kanpoko hormak eta teilatua egoera onean daude, baina horiek ere txukundu egingo dituzte.

ONDAREA BERREZKURATZEN | URTEBETE INGURU IRAUNGO DUTE LANEK

Hasi dira Bergarako Gabiria dorretxea zaharberritzeko lanak

Tavex Algodonera lantegiko bulegoak eroango dituzte hara. Datorren uda aldera izango da hori, egokitze lanak bukatu eta gero

Monika Belastegi

Dagoeneko hasi dituzte Bergarako Gabiria dorretxea birgaitzeko lanak. Udalarena da eraikina, baina iazko apirilean hitzarmena sinatu zuen Tavex Algodonera enpresarekin, eta, hala, 30 urterako erabilera eman dio Udalak. Era berean, dorretxea bir-

gaitzeko ardura hartu zuen lantegiak. Lanen aurrekontua milioi eta erdi eurokoa da. Erdiaren kargu lantegia egingo da eta beste erdia Udala eta Aldundia.

BULEGOETARAKO GUNEA

Tavex Algodonerak zerbitzu orokorretako bulegoak eroango ditu dorretxera -25 bat lagunek egin-

go dute lan han-. Hiru solairu ditu eraikinak eta guztira 900 metro koadro inguru. Behe solairuan harrera, bulegoak eta 35 bat lagunendako bilera gela izango ditu; lehenengoan, hainbat bulego eta erabilera askotariko gela hutsa eta bigarrenean, bulego gehiago.

**Hiru solairutan
900 metro
koadro inguru
ditu eraikinak**

Bestalde, lehenengo solairuko erabilera askotariko gela hutsari dagokionez, lantegiaren historia batuko duen erakusketa jarriko dute. Manu Diez lantegiko idazkari orokorraren esanetan, "erakusketa xumea" izango da eta egongo dira lantegiaren 160

**Algodoneraren
historia batuko
duen erakusketa
ere jarriko dute**


urteotan -ekainean bete dituzte adierazgarri izan diren gaiak: besteak beste, argazkiak, XX. mende hasierako kontabilitate eta akta liburuak, lantegiak jasotako sariak eta fabrikaziorako tresna txikiak.

HERRITARREK ERABILTZEKO

Behe eta lehen solairuetako batzar eta erabilera askotariko gelei dagokienez, dinamikoak izatea nahi dutela azaldu du Diezek eta eraikina "Udalarena eta herriarena denez, enpresatik kanpoko hitzaldi, aurkezpen edota jardunaldietarako irekita" egongo dela.

Monumentu gisa, Kultura Ondare kalifikazioarekin babestutako eraikina da

Etxe gotortu gisa sortu zen Gabiria dorretxea. XV. mendeko gerren ondorioz, Gipuzkoako dorre gehienei gertatu zitzaizen bezala, Gabiria dorrea moztu egin zuten. Hala ere, Gabiriatarrek dorrea mende hartako bigarren erdian berreraiki egin zuten leku berean. Hainbat eraldaketa egin eta gero, XVII. mendean jauregia handitu zuten eta egun dituen leihoak, armarrak eta ateburua eta bertako inskripzioa eraiki zituzten. Eusko Jaurlaritzak Monumentu izendatuta dauka eta Kultura Ondare kalifikatuta 2002a ezker.



Gabiria dorretxearen inguruan idatzi da Algodoneraren 160 urteko historia

Dorretxearen ondoan egin zuten duela 160 urte Algodonera ehungintza. Gaur egun ez da lantegirik geratzen, aktibitatea Elorregikora eroan zuten eta lantegia bota, baina bulegoek oraindik han dira, dorretxearen ondoan. Hala, horiek ere lekuz aldatzeko asmoa aztertzean "izpiritu erromantikoa" gailendu zela azaldu du Manu Diezek: "Bulegoak lekuz aldatuz gero, ez da Algodoneraren ezer geratuko hainbeste urte eman dugun gunen hartan. Hala, dorrea birgaitu eta hemen geratzea pentsatu genuen".

Gaur, San Kristobal eguna, autoak bedeinkatuko dituzte Bergarako Aldai Egia auzoan

Meza nagusia, autoen bedeinkapena eta trikitilariak izango dituzte. Aretxabaletako Larriño auzoan ere ospatuko dute eguna

Goreti Elortza

Egubakoitzean hasi zituzten San Kristobal Aldai Egia auzoan jaiak. Hala ere, gaur izango dute egun handia, San Kristobal eguna, hain zuzen ere. Ekitaldi ugari antolatu dituzte aurten ere auzokideek.

Atzo jende ugari batu zen, eguerdian, San Kristobal bezpera ospatzeko San Kristobal basiliza ondoan. 12:00etan meza nagusia egin zuten. Autoen bedeinkapena urtero meza ostean egiten den arren, aurtengoa meza bitartean egin zuen bedeinkapena apaizak. Hain zuzen ere, San Kristobal basilizatik une batez irten eta bertatik auto guztiak bedeinkatu zituen.

Meza bukatuta, trikitilariak jardun zuten oholtza gainean. Trikitilari bikoteak abesti alaiak jo zituen eta batzuk dantzara animatu ziren. Gehienak, ordea, txosna ondoan gelditu ziren txorizo eta txakolina eskuan zutela. Txosnetako langileen esanetan, txorixoa eskatzen zuen jende gehienak, "bazkaldu aurretik ondo sartzen da-eta", adierazi zigun zerbitzari batek. Ondoren, Moises Azpiazu dantza taldeak egin zuen emanaldia.

Goiz osoan zehar umeentzat tailerrak ere izan ziren basiliza ondoan. Ume ugari jardun zuten margotzen eta eskulan mordoa egiten. Horrez gain, gozoki mordoa bota zituzten airea eta txikienak zoroaren pare ibili ziren gozokiak hartu nahian.



San Kristobal bezperan jai giro polita egon zen basiliza ondoan.

AUZOKIDEEKIN BERBETAN

Alex Alberdi auzo alkateari jaien inguruan galdetu eta esan zigun oso ondo doazela eta jende ugari hurbildu dela asteburuan. "Astelehena da egun handia, San Kristobal eguna. Meza izango dugu 12:00etan eta autoak bedeinka-

tuko ditugu. Gauean, Gardoki taldearekin izango dugu erromeria, 23:00etan", gehitu zuen auzo alkateak. "Kanpoko jende ugari hurbiltzen da autoa bedeinkatzera. Ohiturarekin jarraitzen da, beraz, eta hori oso pozgarria da guretzat. Auzoetako jaiak jarraitzeko garrantzitsua da hori", esan zigun.

Meza bitartean egin zuen bedeinkapena apaizak, aurreko urteetan ez bezala

Umeendako tailerrek, trikitiak eta dantzariak jarri zuten giroa San Kristobal bezperan

ARETXABALETA

Aretxabaletako Larriño auzoan ere ospatuko da gaur San Kristobal eguna. Larriño auzokideek egunean bertan ospatu ohi dute euren zaindariaren eguna. Eta horrela egingo dute aurten ere. Hala ere, zapatuan egin zuen San Kristobal gastronomi elkar-teak afaria elkarteko bazkideekin. Gaur, San Kristobal elizan meza egingo dute 19:00etan. Ondoren, luntxa eskeiniko zaie hurre-ratutako guztiei.

Eguaztenean itxi zuten gaztetxea, egoera txarrean zegoelako

Geltoki zaharra egokituko du Eskoriatzako Udalak gazteendako; irailan hasiko dira Udala eta gazteak hizketan

Jon Berezibar

Eguaztenean itxi zuen Eskoriatzako Udalak Santa Ana auzoko gaztetxea, zegoen egoera txar-rarengatik eta bizilagunen eskaerak zirela medio. Azken urteotako gazte batzarrak orain dela urtebete utzi zuen egoitza, baina oraindik gazte talde batek segitzen zuen hura erabiltzen. Azken talde horrek ere Udalak emandako argudioak onartu eta utzi egin du azkenean, Juan Carlos Bengoa alkateak azaldu bezala. Era berean, alkateak esan du irailan hasiko dituztela Udalaren, gazte batzar zaharraren eta berriaren arteko bilerak geltokiko instalazioen kudeaketaz hitz egiteko.

Aspaldiko asmoa da Santa Ana gaztetxea ixtea. Orain dela sei bat urte utzi zion Udalak mojen zinema zaharra gazte batzarrari, baina bizilagunek behin baino gehiagotan salatu dute eraikinaren egoera txarra. "Sute arriskua, baldintza higienikoak, egoera txarrak eta zaratak" izan dira, alkatearen esanetan, gaztetxea eguaztenean ixteko arrazoiak. Aurrez Gazteria Saileko arduraduna batzartu egin zen gaztetxean geratutako gazteekin eta azkenean Udalaren arrazoiak ulertu eta eraikina utzi zuten.

GELTOKI ZAHARRERA

Udalaren asmoa da geltoki zaharra gazteek erabili ahal izateko egokitzea, eta, hasiera baten, urrian emango dizkie gazteei eraikineko giltzak. Gazte batzarrak proposamen horrekin ados agertu da eta gaztetxea izan beharrean herriko hainbat elkarte eta talderen topaleku bihurtu gura dute gazteek geltoki zaharra. Urrirako eraikina egokituta izatea espero du Udalak.

MUko 2002ko promozioko enplegu tasa %90,9an kokatu da

Goreti Elortza

Mondragon Unibertsitateko 2002ko promozioko ikasleen enplegu tasa %90,9an kokatu da, Eusko Jaurlaritzak aurten biztanleria aktiboan sartzeari buruz egin duen txostenean ageri denez.

Eusko Jaurlaritzako Egailaneko Lan Merkatuaren Behategiak titulua 2002an lortu zuen promoziolari egin dio biztanleria aktiboan sartzeari buruzko inkesta. 2002ko promozioko ikasleen (696) gaur egungo

egoerak islatzen duenez, %90,9 lanean ari dira, %5,7 langabezian daude eta %3,4 ikasten jarraitzen dute. Horrek esan nahi du enplegu maila ia erabatekoa dela; izan ere, 2002ko promoziotik %1,1ek soilik ez du inoiz lan egin -zazpi lagun-; hau da, lanean hasitakoak %98,9 izan dira.

LEHENENGO ENPLEGUA

Azterketak erakusten du lehenengo enpleguaren bila batez beste emandako denbora 3,4 hilabete dela.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA VI. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 6.000 €


Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Abuztuaren 31a arte

Tel.: 948 326535

soltxate@pamiela.org

Arauk: www.pamiela.org



UGARTE

AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean

Horma armairuak

Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea • BERGARA

Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA

San Juan 1A • BERGARA

Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

LAN ESKAINTZA

Bergarako IPARPROJECT

erreformak egiten dituen dekorazio dendan

(zeramika, bainugelak eta sukaldeak)

NESKA behar da.

Informatika eta AUTOCAD ezagutzak izan behar ditu.

Interesatuak, 943 76 98 30 telefonora deitu.



JOSETXO ARANTZABAL

20.000 kilometro egin zituzten atzo Musakolako igerilekuan esklerosi anizkoitza daukatenen alde.

Lagun ugari busti zen atzo esklerosia dutenen alde

'Busti zaitez'-ek aurten ere sentsibilizazioa eta Autonomia Erkidegoko errehabilitazio zentroetarako finantzaketa bilatu du

Jon Berezibar

Arrasaten ere izan zuen atzo oihartzuna Euskadi mailan egindako esklerosi anizkoitzaren aldeko kanpainak. Urtero moduan, Musakolako igerilekuan egin zuten diru bilketa eta ekitaldia, Toki Alai elkarteko laguntzarekin. Aurtengoan Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban dauden hiru zentroetarako dirua bildu gura izan dute antolatzaileek. EAEn 2.000 lagunek daukate esklerosi anizkoitza; gehienak gazteak, gainera.

Urtero-urtero milaka lagun hartzen du parte esklerosi anizkoitzaren kaltetuen aldeko kanpainan. Alde batetik elkarrean materiala saltzen da, eta Arrasaten Musakolako kiroldegi kanpoan ipini zuten mahaia. Eguraldi kaskarra dela-eta jende gutxi gerturatu zen mahaira eta horregatik Tokin, Argikoen eguerdi aldean Seber Altuben ipini zuten materiala salgai eta ostean Musakolako tabernetan ibili ziren diru-eske. Hala ere, materiala saltzen ibilitakoen araber, oso jende gutxi ibili da aur-

tengoan, bai Arrasaten zein gaitzengozko herrietan, jakin ahal izan dutenez. Hala ere, iaz jasotako antzeko kopurua batu dute aurten.

KILOMETROAK IGERIAN

Bestalde, ekintza berezi batekin borobildu ohi dute *Busti zaitez* eguna: kilometroak egiten dituzte igerian. Horrela, Musakolako kiroldegian 20.000 kilometro egin ziren atzo esklerosia dutenen alde. Haur eta nagusi, horretarako propio egokitutako bide baten ibili ziren igerian eta egindako metroak apuntatzen. Kanpainako ekitaldi nagusiak atzo izan baziren ere, oraindik bada go laguntzeko aukera poltsikoko telefono bitartez: 4004 zenbakira MOJATE mezua bidalita.

Arau Subsidiarioei egindako 48 iradokizunen erantzunak onartuta

M.B.

Arau Subsidiarioen Aurrerapenari hainbat herritarrek egindako 48 iradokizunen erantzuna onartu zuen Bergarako udalbatzarrak egunean egindako osoko bilkuran. EAJ-EAren aldeko botoarekin onartu zen; Aralar taldea abstenitu egin zen, PSE-EEk kontra bozkatu zuen eta EB eta PPko zinegotziak ez ziren bilkuran izan.

Hori horrela, egunotan jakinaraziko zaizkie erantzunak iradokizunak aurkeztutako herritarrei eta gero, Aurrerapenaren egileek egin beharreko aldaketak egingo dizkiote dokumentuari. Aldaketok sartu ondoren, osoko bilkurara eroango dute Arau Subsidiarioen Aurrerapena lehen onarpenarako.

ZABALOTEGI AUZOA

Herritarrek egindako iradokizunen artean zeresan handia eragin duena Zabalotegi bizi-lagunek egindakoa izan da, euren auzoa gurutzatuko duen bi norantzeko errepide berriaren harira.

Haiei erantzunez, egunean onartutako erantzunak dio errepide berria ez dela aurreikusitako bakarrak Bolu auzoari beste irteera bat emateko, baizik eta Bolu, Soledad, Zabalotegi eta Artzamendi auzoak mugikortasun egokia izateko, Alde Zaha-

rrean sartzeko. Eta gehitzen du auzo guztien zaintzarako neurri egokiak hartu behar badira, bereziki sentibera izan behar dela Alde Zaharrarekin.

Beste aukera batzuk aztertu diren ere jakin nahi izan dute Zabalotegiko bizilagunek, Mariaren Lagundian sortuko den kale berriak Ibargarai aldean jaisteko aukera, esaterako. Erantzunak dio beste aukera batzuk ere aztertu direla eta Zabalotegiko proposamenaren haritik dio irtenbide partziala dela eta ez duela bermatzen inguruko gunetako zirkulazioa.

Zabalotegikoek azaldu duten beste kezka bat da auzotarren bizi kalitateak txarrera egingo duela errepidearekin. Horren aurrean erantzun diete errepide berriak ez duela saihesbide izaera izango; herriaren Ekialdean dauden auzuneak lotzeko bidea izango dela eta handik ibiliko den trafikoa dela, errepide hori egin ezean Alde Zaharretik ibiliko litzatekeena. Horrekin batera, Zabalotegikoek auzoan sumatzen dituzten gabezien harira erantzun diete egingo diren berrurbanizazio lanekin emango zaiola erantzuna; besteak beste, aparkalekuen arazoari. Bestalde, bikoa izan beharrean, kalea norabide bakarrekoa izatea aztertuko dutela ere aipatu dute.

EBk leporatutako "delitu zantzuen" akusazioei erantzun die Lakuntzak

Argitu du salaketa tramitera onartzea epaiketarako arrazoiak dauden aztertzea dela

Jon Berezibar

Prentsa ohar baten bitartez erantzun gura izan du Inazio Lakuntzak Ezker Batuak haren aurka jarritako salaketa tramitera onartua izan dela-eta egindako adierazpenei.

Arrasateko alkateak garbitu gura du tramitera onartua izateak esan gura duela "fiskalak ikerketa aginduko duela prozedura penala abiatzeko arrazoiak dauden edo ez aztertzeko". Lakuntzak dio EBk hedabideetan egindako hainbat adierazpen "engainakorrak" direla

eta "tramitera onartzearen azkartasuna delitu zantzuen adierazle izan daitekeela esatea iritzi publikoa" bideratzeko saiakera dela. Salaketaren gainen "oso lasai" dagoela eta fiskalak eskatutako dokumentuak prestatzen" dabilela ere gehitu du Lakuntzak. Amaitzeko ohararazten du haren eta zinegotzien "izen ona zikintzeagatik" akzio legala hasteko aukera duela.

HERRITARREI ABISUA

Bestalde, Udalak jakinarazi duenez, azken egunetan Arrasateko baserrietara udal langileak direla esanez hainbat pertsona joan dira estolderia, saneamendu eta antzekoei buruzko informazioa eskatzen. Udalak jakinarazi gura du pertsona horiek ez direla Udaleko langileak ezta haiek bidalitako enpresa batekoak ere.

• ELKARRETARATZEA EGUENEAN

BASAURIKO EMAKUMEAREN HILKETA SALATU ZUTEN

Joan de asteburuan ustez bikoteak labankadaz hildako emakumearen heriotza salatze-ko elkarretaratzea egin zuten eguen arratsaldean Arrasaten, Herriko Plazan.

Basauriko emakumearen hilketa hala izan dela baieztatzen, dagoeneko aurten bikoteak hildako hirugarren emakumea izango da Euskal Erkidego Autonomoan. Urtarriean Begoña Behoyo hil zen Donostian, urtetan gizonaren tratu txarrak jasan eta gero eta bigarren biktima Barakaldokoa izan zen, senarrarekin batera auto baten hilik aurkitu zutena.



JON BEREZIBAR

Albiste izango da

DEBAGOIENA | ANTZUOLAN ETA ELGETAN

Bilkurak egingo dituzte gaur, bi langileren kaleratzeak salatzen

LAB sindikatuak elkarretaratzeak deitu ditu gaurko, astelehena. LAB sindikatuko iturrien esanetan, bi langile kaleratu dituzte: bata, Antzuolako Industrias Anzuolan lantegitik eta bestea, Elgetako Alufersa lantegitik. Hain justu, kanporatze horiek salatzen egingo dituzte elkarretaratzeak: Antzuolako plazan, 12:00etan eta Elgetako Pagatza industrialdean, 11:00etan.

Sindikatuaren esanetan, Alufersaren kasuan enpresan bederatzirte zihon gizonetako kaleratu dute eta Industrias Anzuolanen kasuan, 36 urte zihon emakumea.

BERGARA | HILAREN 18RA ARTE

Santa Marina jaiak ospatuko dituzte egunen aurrera

Eguenean, 12:00etan jaurtiko dituzte jaien hasiera iragarriko duten etxafuegoak. Hala eta guztiz ere, ekitaldiak egubakoitzean hasiko dira. 10:00etan, San Joxepen, Erretiratuendako XVI. Ibilaldi Neurtua egingo dute. 16:30ean, tute, mus, briska, toka, bolo eta billar txapelketetako finalak jokatu dira eta gero, sariak banatu dituzte. 19:30ean, berriz, XIV. Boccia Txapelketa jokatu dute eta horrekin batera, Espainiako Boccia Txapelketa brontzeko domina jaso zuen Agustin Toledori omenaldia egingo diote. Zapatuan, disko festa egingo dute 23:30ean, Matxiategin, eta domekan, Udal Musika Bandak emanaldia egingo du 12:30ean, Fraisko zurin.

ARRASATE | 19:00ETAN KULTURA ETXEAN

'Guztiok gara giltza' batzarra egingo dute egunean, Monterronen

Askatasunak *Guztiok gara giltza* prozesua jarri du abian. Konponbide mahaia martxan jarri behar dela garbi du Askatasunak, baina, aldi berean, "paraleloan guztiz beharrezkoa dugu gutxieneko baldintza demokratikoak ezartzea euskal jendarte osoarentako. Horiek ukatzen badira konponbide prozesu osoa ukatzen da". *Guztiok gara giltza* prozesuan herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela diote; era berean, Euskal Herrian 150 herri batzar egingo dituzte eta hiru punturen gaineko gogoeta egin ostean, ondorioak udazkenean azalduko dituzte.

Gurean ere egingo dira batzarrok. Lehena Oñatin izan zen egubakoitzean; hurrengoa Arrasaten izango da, hilaren 13an, 19:00etan, kultura etxean.

ANTZUOLA | ZENARRUTZABEITIA ETORRIKO DA

Egubakoitzean inauguratuko dute Sanjosepeko bide berria

Datorren egubakoitzean inauguratuko dute Sanjosepe kaleko bide berria. Uzarragako bidegurutzeari -Etxezuri ingurua- eta Lizarragako hiribidea lotuko ditu errepide horrek. Bergara aldetik datozenendako erdigunerako sarrera nagusia eta Elay lantegi aldera joateko bidea izan nahi du etorkizunean Sanjosepe kaleko errepide berriak. Dena den, aurretik, Etxezuriko zubia eta bidegurutzeari egokitu beharko dituzte.

Datorren egubakoitzeko inaugurazio ekitaldira Idoia Zenarrutzabeitia lehendakariordea etorriko da, besteak beste.

ARETXABALETA | 18:30EAN IZANGO DA BILKURA

Aralarrek hiru mozio aurkeztuko ditu gaurko osoko bilkuran

Hainbat gai aztertuko dituzte osoko bilkuran eta horrekin batera, Aralarrek aurkeztutako hiru mozio ere bozkatuko dituzte. Batetik, errekarren beste aldeko etxebizitza tasatu eta babes ofizialekoen prezio eta epeak zehazteko enpresa sustatzailearekin akordio batera iristeko proposamena. Bigarren mozioa bidegorrien gainekoa da eta hirugarrena, Zubillagako hiltegiaren gainekoa da. Hain zuzen eskatuko dute hiltegiaren gaineko udal erabakia betearazteko, izan ere, gogora ekarriko dute iazko irailen udalbatzak onartutako erabakiak oraindik Mankomunitatearen batzordeak ez direla eztabaidatu.

Hitzorduek



IKASKETEN GAINEKO INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU UNED ZENTROAK | Datorren ikasturterako 30 ikasketatik gora daude aukeran UNEDen

Bergarako UNED ikastetxeak unibertsitate ikasketak aukeratzeko informazioa eta orientazioa eskainiko die interesa dutenei. Datorren ikasturtean eskaintzen dituen ikasketen gaineko edukiak azalduko ditu, eta aholkuak ere emango dizkie matrikula egin nahi dutenei.

2006-2007 ikasturterako, Bergarako urrutiko unibertsitateak hogeita hamar ikasketatik gora eskaintzen ditu. Formazio telematikoa eta presentziala batera daitezke. Ikasturte honetan berriak dira Enpresa Zientzietan Diplomatura eta Ingeniaritza Tekniko Industrialia.

ANTZUOLA |

• Hirigintza proiektuen gaineko erakusketa

Herriko hirigintza proiektu garrantzitsuenen gaineko erakusketa dago udaletxeko osoko bilkuren aretoan, bulegoko ordutegian. Sagastiko gizarte etxearen eta Eguzki auzoko sustapen publikoko etxebizitzaren proiektuak ikusteko aukera dago hor.

• Herriko jaiak ospatzen hasiko dira egunean

Eguenean, hilak 13, hasiko dira jaiak umeendako herri bazkariarekin, jokoekin, txosnak irekitzarekin eta, aurtengo berrietasuna, hontza jaistarekin.

ARETXABALETA |

• Odola emateko aukera dago gaur, astelehena

Odol-ateratzea antolatuta du Arabako Odol Emaileen elkarteak. Gaur, astelehena, izango da, osasun zentroan, 16:15etik 20:00etara bitartean.

• Basotxoko erretiratuen irteerako txartelak jasotzeko

Donostia, Aia eta Zarautzera joango dira hilaren 13an. Txartelak jasotzeko azken eguna gaur, astelehena, duzue.

ARRASATE |

• Toloñora irteerara izena emateko egunak

Toloñora mendiko bizikleta irteera antolatu du Besaide

MTBk zaturako, hilak 15, eta izena emateko egunak gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, dituzue. Besaideren egoitzara joan behar da horretarako, 19:30etik 20:30era.

• Odol-ateratzeak egingo dituzte bi egunetan

Arabako Odol Emaileen elkarteak odol-ateratzeak egingo ditu hilaren 11n eta 12an osasun zentroan, 16:30etik 20:00etara.

• Gazte informazio guneko zerbitzua, lehiaketara

Gazteendako informazio guneko zerbitzua kontratatzeke lehiaketa deitu du udalak. Argibideak, kultura etxean (943 77 91 60).

• Bat-bateko mezularitzaren gaineko ikastaroa

Bat-bateko mezularitzaren gaineko ikastaroa emango dute hilaren 11n eta 12an KZgunean, 18:00etatik 20:00etara. Euskaraz izango da.

• Emakume haurdunendako bide hezkuntza ikastaroa

Haurdun dauden emakumeendako eta euren familiendako bide hezkuntza ikastaroa emango dute etzi, eguaztena, Monterronen, 18:00etan.

BERGARA |

• Internet bidez lanpostua bilatzen ikasteko aukera

Internet bidez lanpostua bilatzeko mintegia emango dute

bihar, martitzena, KZgunean, 11:00-13:00.

• Odol-ateratzeak egingo dituzte etzi, eguaztena

Odola emateko aukera izango da hilaren 12an, eguaztena, Seminarioko lokaletan, 18:30ean.

ELGETA |

• Autobus ordutegia berezia izango da uztailaren

Elgeta-Bergara autobus zerbitzuak ordutegi desberdina izango du hil honetan. Elgetatik Bergarara autobusa 07:40, 11:45 eta 13:30ean irtengo da, eta Bergaratik Elgetara 11:30 eta 13:15ean etorriko da. Abuztuan ez da autobus zerbitzurik egingo.

ESKORIATZA |

• Olazarreko 80 urtetik gorakoak Armentiarra doaz

Olazar erretiratuen elkarteak 80 urtetik gorako bazkideendako Armentiarra irteera antolatu du. Eguenean, hilak 13, egingo dute irteera.

ARAMAIO |

• Batasunak herri batzarra deitu du martitzenerako

Herri batzarra deitu du Batasunak. Martitzenean egingo dute, 19:00etan kultura etxean. Besteak beste herri programaz eta hauteskunderaz jardungo dute.

Iritziak

Isilpekoea

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Oñatiko Gazte Asanbladaren gutuna:

Oñatiko alkatesaren aldetik uztailaren 1eko Gaztetxe Eguna zela-eta zabaltzen ari diren esamesen aurrean, Oñatiko Gazte Asanbladak gertakizunak nola izan diren argitu nahi du:

Maiatzaren 22tik ekainaren 22ra 31 egun daude. Normalean, eskari baten erantzuna 15 eguneko epean ematen dute. Gaztetxe egunerako 9 egun bakarrik falta zirela eman ziguten erantzuna. Plazako pilotalekuan ezin zela egin esan zigutenean, unibertitate ondoan, txosnagunean, egitea proposatu genien. Erantzuna ezezkoea izan zen. Arrazoiak: guk aterako genuen zarata plazatik entzungo zela eta ezingo zutela beraien jaialdiaz gozatu. Orduan, Olaiturrin egitea proposatu genien, oraindik urrunago, baina erantzuna ezezkoea izan zen berriz, handik ere zarata entzun egingo zelako eta, gainera, autoendako aparkalekuak kenduko genituelako. Ibarako futbol zelaian egitea ere proposatu genien eta erantzuna ezezkoea berriz ere. Argi dago Udalar ez zuela nahi Valtierra, Moraleja eta Macoteratik etorritako jendeak gu kalean ikustea.

Hala, ETEO atzealdean dagoen Larraña Institutuko zuzendariarengana jo genuen, Gaztetxe Eguna han egiteko baimena eskatzera. Zuzendariaren erantzuna baiezkoak izan zen; beraz, Oñatiko alkatesak ASTELEHENKO GOIENKARIAN esan zuen ez bezala, hor egitea gure ideia izan zen eta ez Udalarena.

Jaia egiteko lekua lortuta, mahaiak eta aulkiak Arrasateko Udalarari alokatu genizkion, Oñatiko Udalaren material guztia hartuta baitzegoen. Baina ekainaren 28an, a ze kasualitatea, 6x4 metroko eszenatokia libre zegoen! Oñatiko brigadakoek eszenatokia kontzertuen lekura eraman zutenean, material guztia han utzi, guk muntatu beharko genuela esan eta alde egin zuten. Iazko Gaztetxe Egunean guk esan genien brigadako ei geuk muntatuko genuela eszenatokia eta beraiek esan zuten guk ezin genuela muntatu seguruen kontuak direla eta.

Muntatzen hasi ginen eta pieza batzuk falta ziren eta beste batzuk ez ziren eszenatoki horretakoak, edo hori uste dugu behintzat, guk ez baitakigu eszenatoki bat muntatzen. Azkenean hala moduz muntatu genuen.

Gutun hau ere halaberrez idatzia izan da. Guk ez dugu inoiz Oñatiko Udala gezurretan ari dela esateko asmorik izan.

Sarean harrapatuta

Jarraitu duzu munduko futbol txapelketa?

Atzo amaitu zen munduko futbol txapelketa. Ia hilabeteren ondoren badakigu zein den datozen lau urteotarako munduko txapelketa. Jokaldi edo futbolari ikusgarriak ez da egon aurtengo mundialean, baina,

hala ere, eman du zeresana. Txapelketaren gaineko eztabaida jarri dute *Goiena.net* webgunean: jarraitu duzu munduko futbol txapelketa? Hemen jaso ditugu irakurleen iritzi batzuk.

GIROAK ERAKARRI NAU PARTIDUAK IKUSTERA

Ni ez naiz oso futbolzalea. Hala ere, lehengoan Frantzia eta Portugalen arteko partidua ikusten egon nintzen. Etxeko denak futbola ikusten hasi ziren eta azkenean ni ere futbola ikusten. Futbolak sortzen duen giroak eta euforiak erakarri egin ninduen eta kuriositatea sortu. Egia esan niri bost axola dit nork irabazten duen mundiala.

Leire / www.goiena.net

HEDABIDEAK PUZTU EGIN DUTE LEHIAKETA

Ni ere ez naiz futbolzalea, baina gizaki masak mugitzen dituzten fenomenoak ikustea gustatzen zait. Zer ote dago mugimendu horren guztiaren atzean? Nik esango nuke hedabideak puztu dutela gehiena eta askotan badirudi ez baduzu mundiala jarraitzen mundutik kanpo bizi zarela.

Gorka / www.goiena.net

HEDABIDEEN ARTEKO BORROKA JARRAITU DUT

Bai jarraitu dut, baina gura baino gutxiago. La Sexta eduki ez dugun ikusleendako ez da mundial onena izan, Espainiaren partiduek eta azken fasekoak bakarrik eman dituelako Cuatrok. Dena dela, interesantea irudit

zait audientziak lortu guran Cuatrok eta La Sextak zelako borroka eduki duten. Non egon den giltza, patriotismo espainiarra muturreraino bultzatuta. Cuatrok bere logotipo gorria Espainiako koloreekin lotu du, Madrillgo Colon plaza bihurtu dute zaleen bilgune, eta telebistako esatariek inoiz baino ozenago egin dute Espainiaren alde: "Levántense todos, que van a tocar el himno de España...". Eta, inoiz baino gehiago gozatu dut *Marca* eta *AS* moduko egunka-

rien azalekin. Jendeak sinistu egin zuen Espainia txapelkun izan behar zela, futbola zer zenik ere ez zekiten taldeei irabazita. On-Zinedine azaldu zen arte. Zeinek erretiratu zuen zein?

Ronaldinho / www.goiena.net

GATZIK GABEKO MUNDIALA IKUSI DUGU

Ingurukoak geratzen ziren tabernan partidua ikusten eta bakarrik ez baduzu egoterik nahi, joan egin behar. Gero, pixka bat zaletu ere egin naiz eta etxean ikusi ditut partidu batzuk. Hala ere, gatzik gabekoa iruditatu zait. Ni bezalako futbolzale ez den batendako ez da egon kristoren partidurik edo historiara pasatuko den jokaldirik.

Ingurua / www.goiena.net

EZ DU BAKERIK EMATEN FUTBOLAK

Nik ez dut jarraitu mundiala, baina beti jasotzen duzu handik edo hemendik zerbait. Izan ere, ez da beste ezer egon telebistan, irradian, prentsan, jendearen artean... Ez al dago bada beste konturik? Liga bukatu zenean gustura geunden batzuk, pixka batean futbolzaleak isilik egongo zirela. Baina, keba! Orain mundiala bukatu eta laster hasiko da berriz liga. Ez dago bakerik!

Bakea nahi / www.goiena.net

www.goiena.net

Jarraitu duzu aste hauetan jokatu den munduko futbol txapelketa?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera


Halaxe erantzun digute

Nagusi dependenteen kopurua gorantz doa. Horrek dakarren arazoak konturatuta dago gizartea



IÑIGO GARITANO | GIZ. ZERB. ARDURADUNA, ARRA.

Gizarte zaharkituaren zaintza zerbitzu publikoen esku bakarrik uztea jasanezina izango da. Gizartearen eta, batez ere, familiaren inplikazioak ezinbestekoa izaten jarraituko du; eta, horregatik, familiei laguntzak eta erraztasunak eman behar zaizkie pertsona nagusiez arduratzeko.



AITOR URRUTIA | ESKORIATZAKO EGOITZAKO KUD.

Aldundi eta udalei arazoak gainera kolpean etorri zaie, eta, larria bada ere, ez da erraza erantzun aproposa ematen jakitea. Kalean, baina, oraindik badago pedagogia sozial baten beharra, ze norberari tokatu arte ez bakarrik konturatzen arazoaren dimentsioak, hain zuzen ere.



MAITE URTZAIN | ERIZAINA

Pertzepzio errealek ez dago. Etor-kizunean nagusiari haren azken egunak zelan igaro nahi dituen aukeratzeko askatasunean egin behar da lan, eredu paternalistetatik kanpo. Sarri zaharrari ez zaio erabakitzen uzten. Urte gehiago bizi izatea lortu da, baina, sarri, ez kalitate handiarekin.



GREGORIO IRURETAGOIENA | BERGARAKO EGOITZAKO ZUZ.

Uneotan instituzioak gabiltza erantzuten eta 2010. urterako, aurreikuspenak betez, Bergara, Antzuola eta Elgetan nagusi dependenteen eta autonomoen beharretarako prest egongo gara. Ikerketen arabera, hala ere, etorkizunean plaza eta baliabide gehiago beharko dira.

Egunkarietako harribitxiak

GOSEAREN AURKA, BAINA KABIARRA JATEN

Bob Geldoff musikaria oso ezagun egin da Hirugarren Munduko gosearen aurka egindako kanpaina eta kontzertuengatik. *El Mundo* zelatan ibili zaio eta kontaktu du kontzertuko 60.000 mila euro kobratu eta zati bat Afrikara bidaltzeari uko egiten diola edota 5 izarreko hotelak eskatzen dituela.

'El Mundo'
2006-07-09



KANPORAKETEN AURKA FRANTZIAN

Hauteskundeak gertu, etorkinei buruzko polemika berriz ere piztu da Frantzian, Sarkozyren lege berriarekin "hautuzko inmigrazioa" proposatuz. Horrela, goi mailako prestakuntza duten etorkinek beteko lituzkete paperak lortzeko baldintzak (artista eta kirolariak barne). Hori dela eta, manifestazio jendetsuak egon dira Frantzian azken egunotan. Sarkozyren jarrera ez zaie batere gustatu frantziarrei.

Barne ministroak abuztuaren 15era arte ipini du paperak lortzeko epea aipatutako baldintzetan. Horrela, milaka etorkin eta haurrek utzi beharko lukete herrialdea eskakizunak betetzen ez dituztelako. Frantziako Gobernuaren datuen arabera 40 mila haur leudeke egoera horretan, baina Sarkozy iragarri du irizpide horiek %8k ez dituztela betetzen. Milaka haur, hala ere.

'Berria'
2006-07-09



Zorroztailea



Jainkoaren izenean

Valentziako artzapezpikuak, metroko biktimen hiletako hitzaldian: "Non ote zen Jainkoa une horretan?". Txiste patetikoa da Jainkoaren isiltasunaz hitz egitea eta Eliza ofizialaren isilune lurrekoak ahaztea: klima aldaketaz baino 'top-less'-agatik kezkatuago ageri, eta hiesaren prebentzioan, adibidez, zeruari oihu egiteko moduko jarrera zabarra daukan Eliza.

Manuel Rivas
'El País' | 2006-07-08

ditut palioari diktadorearen gainean eusten.

Barkamena besteri banatzen horrenbesteko ofizioa daukan Eliza ofizial horri -batzuei hain erraz, besteri ezta pentsatu ere, hori bai-, zergatik kostatzen ote zaio horrenbeste denbora barkamena eskatzea?

Barkazioa, pobrezia-erelazioa jatorrizkotik hain urrun ibiltzeagatik; barkazioa, botere "lurrekotik" hain nazkagarriro gertu aritzeagatik; barkazioa, "gizon bat eta andre bat, zerurako haurrak egiteko" ez diren familiak horrenbesteko mespretxuz erabiltzeagatik; homosexualen errealtate onartu ez, baina gero bere apaiz pederastak lurreko justiziatik libratzeagatik...

Jaungoikoari begiratzeko modurik zintzoena, inguruko lagun hurko ahulenari errespetuz begiratzeta eta laguntzea da. Gainerakoa, mistizismo ustela, nartzisismo txepela eta boterekeria krudela baino ez. Horrelaxe, behintzat, ikasi nuen nik.

Gerardo Markuleta

Gaztetxo kristau izan zen eta aspaldion heldutxo tarteka agnostiko tarteka ateo huts den batentzat, amorragarri samarrak dira Eliza katoliko ofizialaren hainbat jokabide eta jokamolde.

Valentziako artzapezpikua- ren galderak gogora dakar ezinbestez Benedikto XVI.ak Auschwitz-era egindako bisitaldian egindakoa: "Zergatik, Jauna, utzi zenuen hau guztia gerta zedin?". Eta ezinbestez datoz gogora beste galdera pare bat: Eta non zegoen Eliza katolikoaren hierarkia nazismoaren garaian? Eta frankismoarenean?

Lehen galderaz, liburu eta dokumentalei esker baino ez dakit isil-isilik egon zela. Baina bigarrenaz, neure belarriekin entzun ditut gerra eta gerraoste kriminalari "Gurutzada" deitzen, eta neure begiekin ikusi

"Eliza ofizial horri zergatik kostatzen ote zaio horrenbeste denbora barkamena eskatzea?"

"Barkazioa, pobrezia-erelazioa jatorrizkotik hain urrun ibiltzeagatik; botere "lurrekotik" hain nazkagarriro gertu aritzeagatik..."

Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-VII-09

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

PP NORAEZEAN

PPren strategiaren helburua Gobernu higitzea da, baina, era berean, Estatuak erabil dezake euskal herritarren gehiengoaren nahiaren aurka egiteko aukera moduan. Horrelako zerbait gertatu zen Katalunian eta kontuan hartzea komeniko litzateke.

Josu Juaristi
2006-07-09

'El Diario Vasco'

ERANTZUKIZUNA ETA ERAGINKORTASUNA

Alderdi Popularrak, edozein arrazoirengatik, fundamentalismoaren tentazio uneak bizi ditu. Espainiako politikan gertatzen den guztia euren balio absolutuen prismaren ikuspuntutik ikusten dute. Ez dago lekurik, inondik ere, ñabar- durenako edo kritika arrazoiturako.

Joseba Arregi
2006-07-09



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

KIROLA

- Ugarrixa 2-1 nagusi A Ze Flaxaren aurkako beteranoen finalean | 14
- Aramaioko arrantza txapelketan Iñigo Gartzia eta Maialen Diaz garaile | 18



Josean Mulas
eskalatzaile
bergararrak
boulderra zer den
azaldu digu | 19

61. ANTZUOLA SARIA



Seguros Bilbao taldea izan zen atzoko irabazlea. Sari nagusiaz gain, taldekakoa eta mendikoa ere irabazi zituzten bilbotarrek.

JOSETXO ARANTZABAL

ANTZUOLA | AURTENGOA IÑAKI LETE XIV. OROIGARRIA IZAN DA

Asentzion ihes egin eta gero Javier Iriarte nagusitu zen Antzuolan

Lasterketa 77 txirrindularik hasi zuten eta horietatik 44 bakarrik iritsi ziren Antzuolako helmugara

125 kilometroko ibilbidean, Deskarga eta Asentzio gaina igo behar izan zuten parte-hartzaileek

Arantzazu Ezkibel

Seguros Bilbao taldeko Javier Iriarte izan zen azkarrena Antzuolako helmugan. Asentzio igotzen egin zuen ihes nafarrak eta azken 15 kilometroak bakarrik egin eta gero, Antzuolako plazan lehenengo helmugaratu zen. 3:06:36ko denbora behar izan zuen

Javier Iriartek 125 kilometroko ibilbidea egiteko.

LASTERKETA ZOROA

09:30ean eman zitzaion hasiera lasterketari Antzuolako plazan. 77 txirrindulari izan ziren hasierako puntuan. Txirrindulariek Bergararako bidea hartu zuten. Lasterketa hasierako kilome-

troetan, ihesaldi saioak egon ziren. Lasterketak hasiera zoroa izan zuen, Seguros Bilbao taldeko zuzendariak adierazi zigun bezala: "Ez genuen uste lasterketa hain bizkorra izango zenik. Hasieratik egon dira ihesaldi saioak eta guk, zorionez, Javier Iriarte izan dugu ihes egindako taldetxoan".

Bergararik Oñatira joan zen lasterketa. Oñatin bira eman eta Bergararik berriro ere Antzuolara iritsi ziren txirrindulariak. 34,3 kilometroko itzuli hori bi bider egin zuten parte-hartzaileek. Bigarren itzulian, txirrindulariak Oñatira iritsi zirenean, tropela zatitu egin zen. 14 txirrindulariz osatutako taldeak ihes egin zuen; haien artean, Javier Iriarte lasterketako irabazlea zegoen eta baita Gurutz Larrea antzuolarra ere.

Baina ihes egindako txirrindulariak ez ziren ondo konpondu. Javier Iriartek bukaerarako gorde nahi zituen indarrak. Horregatik, ez zuen erreleburik eman ihesaldian zehar.

Deskarga gainean Würth taldeko Abelino Antuña izan zen lehena

Iriartek, lasterketa irabazteaz gain, mendiko saria eta Lehendakari saria ere irabazi zituen

Ihes egindako taldea banatzen hasi zen Deskargara igo orduko (72,2 kilometroan). Han, Würth taldeko Abelino Antuña izan zen azkarrena.

Baina txirrindularien arteko tartea oso txikia zen. Legazpitik Oñatira jaitsi ziren txirrindulariak. Elorregiko bidegurutzean Bergarara hartu eta handik Angiozarrera joan ziren. Gurutz izan zen Asentzio igotzen hasi zen lehenengo txirrindularia, baina bidean, Javier Iriartek harrapatu egin zuen. Beraz, nafarra izan zen Asentzio gainean lehenengo txirrindularia.

Antzuolako plazara bakarrik iritsi zen Javier. 46 segundora Abelino Antuña Würth taldeko txirrindularia iritsi zen. Parte hartu zuten 77 txirrindularietatik, Antzuolako plazara 44 bakarrik iritsi ziren.

61. ANTZUOLA SARIA

• DESKARGAN ABELINO ANTUÑA LEHENENGOA ETA ASENTZION JAVIER IRIARTE



DESKARGA GAINA.

Deskarga lehenengo igo zuen txirrindularia Würth taldeko Abelino Antuña izan zen. Gainera, Antuña bigarrena izan zen sailkapen orokorrean.

Oñatin tropela banatu eta gero, 14 txirrindulariz osatutako taldeak egin zuen Antzuolan gora. Baina taldea zatitu egin zen eta Würth taldekoa izan zen azkarrena Deskargan (72,2 kilometroa). Beste txirrindulariak tarte txikira pasa ziren; hala, Legazpitik Oñatira jaitsi orduko 14 txirrindulariko taldea berriro ere batuta zen.

Lasterketako beste mendatean, ASENTZION gainean hain zuzen ere, Javier Iriarte izan zen azkarrena. Hori dela-eta, Iriartek Antzuolako lasterketa mendiko saria irabazi zuen.

SARI BANAKETA.

Atzoko protagonista, dudarik gabe, Javier Iriarte nafarra izan zen. Berarentzat izan ziren Antzuolako plazan banatu ziren ia sari gehienak.

61. Antzuola sariko irabazlearen garaikurra eta lore sorta jaso zituen. Horrez gainera, baina, mendiko saria ere berak eraman zuen.

Antzuolako proba Lehendakari sarirako puntuagarria izan zen. Atzoko garaipenarekin, Iriartek Lehendakari sariko maillota ere jantzi zuen Antzuolako udaletxean. Talde onenaren saria Seguros Bilbao taldeak jaso zuen. Saria hartzera taldeko txirrindulariak igo ziren. Gurutz Larreak lehenengo herritarraren saria jaso zuen bertaratutakoen txalo artean.

Emaitzak

LEHENENGOAK

1. Javier Iriarte (3:06:36)
2. Abelino Antuña (3:07:22)
3. Gorka Izagirre (3:07:24)
4. Iñaki Ocaña (3:07:32)
5. Gurutz Larrea (3:07:34)
6. Igor Romero (3:07:34)
7. Xabier Zabalo (3:07:34)
8. Andoni Blazquez (3:07:34)
9. Ruben Palacios (3:07:34)
10. Arturo Mora (3:07:34)
11. Jonathan Castroviejo (3:07:34)
12. Pedro Gutierrez (3:07:34)
13. Joseba Larralde (3:08:56)
14. Berik Kupeshe (3:08:56)
15. Bitor Delaparte (3:10:07)
16. Jon Garate (3:10:07)
17. Aitor Olano (3:10:07)
18. Eneko Etxebez (3:10:07)
19. Ruben Rey (3:10:07)
20. Beñat Intxausti (3:10:07)

TALDEKAKO SAILKAPENA

1. Seguros Bilbao
2. Azpiru Inmobiliaria (1:41:33)
3. Würth (1:41:33)

MENDIKO SARIA


1. Javier Iriarte (3:06:36)

LEHENENGO ANTZUOLARRA

5. Gurutz Larrea (3:07:34)



• LASTERKETA ZOROA ETA GOGORRA IZAN ZEN, PARTE-HARTZAILEEN IRITZIZ



JAVIER IRIARTE | ZIZUR NAGUSIA

“Lasterketa ondo joan da. Indarrak bukaerarako gorde ditut eta azkenean ihes egin dut tropeletik”

“Ez dut erreleburik eman behar izan; beraz, lasterketan zehar lasai joan naiz”, azaldu zigun irabazleak.

“Ihesaldian Azpiru taldeko hiru txirrindulari sartu dira; beraz, indarrak gorde ditut bukaeran ihes egiteko”, esan zigun Javier Iriarte nafarrak.



PEDRO BILBAO | BILBAO

“Irabazteko helburuarekin etorri gara Antzuolara; lasterketa eta taldekako saria lortu ditugu”

“Karrera guztietara bezala, Antzuolara ere zerbait irabazteko asmoarekin etorri gara”, adierazi zigun Seguros Bilbao taldeko zuzendariak. “Lasterketa zoroa izan da, ihesaldi askokoa. Guk bost txirrindulari bakarrik ekarri ditugu, baina irabaztea lortu dugu”, azaldu zigun, pozik.



GURUTZ LARREA | ANTZUOLA

“Asentzio igotzen hasi garenean ni nindoan lehenengo, baina bidean harrapatu egin naute”

Gurutz Larreak herriko lehenengo txirrindulariaren saria jaso zuen; pozik zegoen antzuolara lasterketan egindako lanarekin. “Hasieratik egon dira ihesaldi saioak, baina tropela Oñatin banatu da. Asentzio igotzen ni hasi naiz aurrena; gero, harrapatu egin naute”, esan zigun.



UNAI ARANTZABAL | BERGARA

“Ez dut lasterketa amaitu, Deskarga igotzen utzi dut. Taldeak lan ona egin du ibilbide guztian”

“Min hartuta nengoen eta ez nuen lasterketan parte hartu behar. Hala ere, etorri egin naiz, baina azkenean Deskargan gora utzi behar izan dut”, azaldu zigun txirrindulari bergararrak. “Taldeak lan ona egin du. Gorka hirugarren sartu da eta Gurutz bosgarren”, esan zigun.

FUTBOLA | BILDURBAREK ETA A ZE FLAXA TALDEEK JOKATU ZUTEN KONTSOLAZIO FINALA

Ugarrixa nagusi Irish Puben aurkako beteranoen finalean

Egubakoitz arratsaldean jokatu zen Ipintzako beteranoen txapelketako finala, eta partidu parekatua jokatu arren, Ugarrixak mendean hartu zuen Irish Pub taldea: 2-1

Mireia Bikuña

Partidu amaierako markagailuak erakusten zuen moduan, norgehiagoka oso parekatua izan zen. Ugarrixak, baina, hobeto jokatu zuen eta horrek abantaila eman zion markagailuan. Beti aurretik egon zen markagailuan.

Lehenengo gola Aritz Urtzi- nek egin zuen area txikitik. Ugarrixak aukera garbiak izan zituen gol gehiago egiteko, eta atezainak ere egin zuen geldiketa bikainik.

Bigarren zatian, Ugarrixa taldeko atezainak egindako aldaratze bat aprobetxatu zuen Fran Gonzalezek berdinketaren gola egiteko. Hurrengo minutuetan bi taldeek aukerak izan zituzten, baina garaipenaren gola Arkaitz Aranek lortu zuen Ugarrixaren dako.

Hala, azkeneko uneetan Irish Pub taldeko jokalariek aurrera egin zuten berdinketaren bila eta aukera garbi bat ere izan zuten, baina baloiak zutoina jo zuen.

KONTSOLAZIO FINALA

Final nagusiaren aurretik, baina, 3. eta 4. lekuetarako partidua jokatu zuten Bildurbarek eta A Ze Flaxa taldeek. Eta partidu hartan gol festa izan zen.

Legezko 50 minutuak berdinketarekin amaitu ziren: 3-3. Bildurbarek taldeak 3-leko abantaila izan zuen markagailuan, baina A Ze Flaxak partidua berdintzea lortu zuen. Joxu Arana (2 gol) eta Juan Luis Etxanizek egin zituzten Bildurbarek talde-

koen golak. Eta Pepe Vallejos eta Boni Agirre (2) izan ziren A Ze Flaxa taldeko golegileak.

Bada, kontsolazio finala penalti jaurtiketetan erabaki zen. A Ze Flaxa taldeak lehenengo bost penaltiak sartu ondoren, sei-garrena huts egin zuen.

SARI BANAKETA

Bi finalak jokatu ondoren sari banaketa ekitaldia egin zen Ipintzan bertan. Finaletak sariak banatzearekin batera, beteranoen txapelketako jokalariei, atezain eta golegile onenak eta jokalariei eta talde beteranoenak saritu zituzten.

Juan Luis Etxaniz (Bildurbarek) izan da, 21 golekina, txapelketako golegile nagusia; Josetxo (Ugarrixa) jokalaria onena; Kiko Araguren (Ugarrixa) atezain onena; Jesus Egin (Ezinleike) jokalaria beteranoena eta Ezinleike taldea, talde beteranoena.

Irish Pubek berdinketa lortzeko aukera garbia izan zuen; baloiak zutoina jo zuen

Kontsolazio finala Bildurbarek taldeak irabazi zuen, penalti jaurtiketetan



Finala jokatu zuten bi taldeak -Ugarrixa eta Irish Pub- sariak jaso ondoren.

JOSETXO ARANTZABAL

• FINALETAKO PROTAGONISTAK



JON A. GARITANO ETA JOSE GOMEZ PESCADOR | UGARRIXA ETA IRISH PUB

“Ugarrixak hobeto jokatu du finala, baina partidua nahiko parekatua izan da. Liga txapelketan A Ze Flaxak irabazi zuen. Txapelketa amaituta, atsedean hartuko dugu. Ziur bi taldeak datorren denboraldian txapelketan parte hartzen dugula”.



MANU DIEZ ETA JABI IBARRA | BILDURBAREK ETA A ZE FLAXA

“Hasierako minutuak nahiko motelak izan dira. Partidua aurrera egin ahala joko hobe egin dugu bi taldeek eta lehia parekatu egin da. Azkenean penalti jaurtiketek erabaki dute txapelketaren parte hartzea; partiduari emozio handiagoa emateko”.

11nako futbol liga eta kopa txapelketa, azken txanpan

Ipintzako beteranoen 7nako futbol txapelketa amaituta, 11nako futbol liga eta kopa txapelketako azken norgehiagokak jokatzeko biderik ez da geratzen. Azken astean sartu dira txapelketak.


Gaurtik aurrera jokatu dira liga txapelketako finalerdiak eta finala eta bihurtik aurrera, kopa txapelketako final-laurdenak, finalerdiak eta finala. Bada, egubakoitzean amaituko dira Ipintzako 11nako futbol txapelketa biak.

Gaur arratsaldean, liga txapelketako finalerdiak jokatu dira. Arratsaldeko 7etan, La Juve eta Gorriones taldeak lehiatu dira eta ondoren, 20:15ean, Angiola eta Indar Gorri. Bi partidu horietako irabazleek final handia jokatu dute egubakoitzean, 19:45ean. Galtzaileak, aldiz, kopa txapelketako finalerdietara pasatu dira.

Kopa txapelketako final-laurdenak bihar jokatu dira: 19:45ean, A Ze Flaxa eta Beti Cup lehiatu dira eta

ondoren, 20:45ean, Titos Getokuek eta Ez Dakiu. Bi partidu horietako irabazleak izango dira liga txapelketako finalerdietatik datozen bi galtzaileen aurka jokatu dutenak. Kopa txapelketako finalerdiak eguaztenean jokatu dira, 19:45ean eta 20:45ean. Irabazleek finala jokatu dute barikuan, 18:45ean.

Kopako finalean 25 minutuko bi zati jokatu dira; ligakoak, aldiz, 40 minutukoak izango dira.



Eskoriatza Kirol Elkarte

Gehiago egin ahal zutelako sentsazioarekin geratu dira

Horixe kirol balantzeari dagokionean. Bestalde 530 euroko irabaziak izan dituztela ere esan zuten

Arantzazu Ezkibel

530 euroko superabita izan dute Eskoriatza Kirol Elkartekoek 05/06 denboraldian. Hala jakinarazi zuten egubakoitzean Ibarraundi museoa eginiko batzar orokorrean.

Eskoriatza elkarteak izan dituen gastuen laurdena jokalarien joan-etorriak ordaintzeko erabili dute. Beste zati handi bat, berriz, epailei eman beharretan joan zaie eta %1,5 multak ordaintzen gastatu dute.

JOKOAN HOBETU BEHARRA

Kirol arloari dagokionez, denboraldiak sentsazio gazi-goza utzi du zuzendaritzan. Pilota sailean balantze ona egin zuten. Denboraldiko lan onena kadete mailako Oizartabal eta Agirianok egin dute, Debarroko finalera iritsita.

Saskibaloian, berriz, denboraldi zaila izan dute. Seniorretan maila galdu dute eta datorren denboraldiari begira lau finala jokatzeko helburua jarri dute. Areto futboleko, maila nazionaletik euskal ligara jaitsi da lehenengo taldea. Narciso Pavo saileko arduradunaren hitzetan, gorengoen maila ez mantentzea desengainu handia izan da.



JOSETXO ARANTZABAL

Elkarteko jokalariek asko hurbildu zen batzar orokorrera egubakoitzean.

Lehendakariorde berria izango du Eskoriatzak: Javier Corbal

Denboraldiko berriko aldaketa nagusietako bat zuzendaritzak izango du. Javier Corbalek lehendakariorde lekua beteko du 06/07 denboraldian.

Orain arte saskibaloiko senior mailako entrenatzaile lanetan aritu da Corval eta aurrerantzean, bere lekua J. Mari Sanchezek beteko du. Gazte taldearen ardura Josu Bakerok izango du eta kadete mailako entrenatzailea Fernando Raso izango da. Fernandok, gainera, saskibaloiko sailaren ardura ere izango du.

Areto futboleko, Iñaki Corralek lehenengo taldearen entrenatzaile postua utziko du. Entrenatzaile berria Antonio Regaño izango da. Ohorezko mailan Arturo izango da entrenatzailea eta areto futbol sailaren ardura Narciso Pavok izango du.

Atletismoa



ARRASATE ATLETIKO TALDEA

Markelek ez zion eutsi erritmo aldaketari.

Zorte txarra izan zuen Markel Blancok Espainiako Txapelketan

Mireia Bikuña

Markel Balncok azken postuan amaitu zuen 1.500 metroko lasterketa. Ourensen jokatuak gazteen Espainiako Txapelketan, arrasatearrak ezin izan zuten lehenen artean sailkatzerik izan.

Lasterketa atzo izan zen eta 20 korrikalari bakarrik sailkatu zirenez finalerako, guztiek serie berean egin zuten korrika.

ERRITMO ALDAKETA

Lasterketako bigarren itzulian egon zen erritmo aldaketari ezin izan zion eutsi Blancok. Ondorioz, etsita amaitu zuen lasterketa Arrasateko gazteak. Gainera, oinetako iltze batekin min hartu zuen atletak.

Lander Errasti eta Remi Diosdadok, aldiz, Lurreldeko Selekzioen Arteko Joko Europiriniarran parte hartu zuten. Errastik pertika eta xabalina jaurtiketetan parte hartu zuten. Pertikan 4,20 metroko jauzia egin zuten eta xabalina 39,60 metrora jaurti zuten. Bi probetan bosgarren tokian amaitu zuten. Remi Diosdadok, berriz, 100 eta 200 metroko lasterketetan zuten denborak hobetu zituen.

Jonathan Perezek, azkenik, Elxen Klubeko Arteko Errege Kopan parte hartu zuen. Real Sociedad taldeko atletak 4,94 metroko jauzia egin zuten. Bosgarren lekuan amaitu zuen. Real Sociedad taldeak, gainera, maila mantenduko du.

Tenisa, I. Debagoieneko txapelketa

Etxanizek eta Aranesekek jokatu dute teniseko finala datorren domekan

Arantzazu Ezkibel

Debagoieneko lagun arteko I. tenis txapelketak baditu finalistak: Juan Luis Etxaniz eta Jorge Aranesekek jokatu dute txapelketako final handia datorren domekan, goizeko 11etan, Oñatiko Zubikoa kiroldegian.

FINALERDI SAMURRAK

Atzo jokatu zuten bigarren finalerdia Jorge Caballero eta Juan Luis Etxanizek. Partiduak bi set izan zituen; lehenengoan samur

nagusitu zen Etxaniz (1-6), baina bigarren zailtasun handiagoak izan zituen aurkaria mendean hartzeko (5-7).

Beste finalerdian, Jorge Aranes 6-2 eta 6-3 nagusitu zitzaion Roberto Irizarri. Kontsolazio finala ere domekan izango da, 09:30ean, Caballero eta Irizarren artean.

Txapelketa apirilaren 1ean hasi zen. Lehenengo fasean 18 jokalariek aritu ziren hiru taldetan banaturik. Bigarren fasea, berriz, kanporaketa bidez jokatu da.



ARANTZAZU EZKIBEL

Eguenean jokatu beharreko finalerdia atzo jokatu zuten Etxaniz eta Caballeroek.

DEBARROKO PILOTA TXAPELKETA



Hiru finaletan parte hartu zuten 12 pilotariek sariak jaso ondoren argazkia egin zuten sariak emandakoekin.

MIREIA BIKUÑA

DEBARROKO TXAPELKETA | FINALA JOKATU ZUTEN HAMABI PILOTARIETATIK, HAMAR IBARREKOAK ZIREN

Aretxabaleta, Eskoriatza eta Antzuola, Debarroko txapeldunak

Oiartzabal-Agiriano eskoriatzarrek 22-15 hartu zuten mendean Arrasateko bikotea

Mendizabal-Azkaratek 22-16 irabazi zuten gazte mailan. Ibon eta Unai Errastik 6. txapela jantzi zuten

Mireia Bikuña

Giro bikaina egon zen atzo Aretxabaleko Iturrigorri pilotalekuan. Debarroko txapelketako hiru finalak jokatzeko ziren eta 12 pilotarietatik hamar ibarrekoak ziren. Bada, frontoia ikusle betez kadete, gazte eta senior mailako finalak ikusteko.

KADETE MAILAKO FINALA

Debagoieneko pilotarien arteko finala zen lehenengoa. Eskoriatzako Oiartzabal eta Agiriano Arrasateko Zubizarreta eta Bolinagaren aurka lehiatu ziren.

Partidu hasierako tantoak oso luzeak izan ziren. Eskoriatzako bikoteak hartu zuen aurre markagailuan, 0-3. Baina arra-

satearrek bosgarren tantoan berdinketa lortu zuten. Oiartzabal eta Agiriano egindako seigarren tantoa izan zen hiru finalerako tantorik ederrenetarikoa. Lau pilotariek ederki jokatu zuten tanto hartan, dejada asko eginda. Tanto haren ondoren Arrasateko bikoteak beherakada izan zuen eta eskoriatzarrek markagailuan abantaila hartzeko aprobetxatu zuten.

MENDIZABAL-AZKARATE

Gazte mailako finalaren hasiera ere oso antzerakoa izan zen. Mendizabal eta Azkaratek zortzi tanto egin zituzten jarraian. Elgoibarko bikoteak pilota aldatu zuten, huts gehiegi egin zituzten antzuolarrek eta markagailuan zuten alde murriztu egin zen: 8-6. Handik aurrera Antzuolako bikotea izan zen partiduan agin-

du zuena. Mendizabalek joko bikaina egin zuen. Hark jaso zuen, gainera, gazte mailako finalerako jokalaririk onenaren saria.

Iturrigorri pilotalekua jendez gainezka egon zen pilotako finalak ikusteko

Xabier Agiriano, Aitor Mendizabal eta Ibon Errasti finalerako jokalaririk onenak izan ziren

SEIGARREN TXAPELA

Senior mailako finala izan zen partidurik parekatuena. Ibon eta Unai Errastik egin zituzten lehenengo tantoak. Markagailuan 8-5 aurretik egon ondoren, Axpe eta Uribarren arrasatearrek zazpi tanto egin zituzten jarraian eta 8-12 jarri ziren aurretik. Duda barik, partiduko unerik zailena Errasati Anaiendako. Baina ez zuten amore eman eta gorabehera askorekin 22. tantora iristea lortu zuten. Hala, seigarren txapela jantzi zuten.

SARI BANAKETA

Finalak bukatu ondoren sariak banatu zizkieten irabazleei. Hiru finalerako jokalaririk onenak ere saria jaso zuten. Agiriano, Mendizabal eta Ibon Errasti izan ziren kadete, gazte eta senior mailako jokalaririk onenak.

DEBARROKO PILOTA TXAPELKETA

• FINALETAKO PROTAGONISTAK



ALEX OIARTZABAL ETA XABIER AGIRIANO |
ESKORIAITZA

"Gehienondako faboritoak ginen arren, Alexek eta biok bagenekien partidua zaila izango zela. Baina finaleran faborito izateak mesede baino gehiago kalte egiten du"

Nekatuta baina gustura amaitu zuten partidua Eskoriaitzako pilotariek. Hasierako tantoak bereziki luzeak izan ziren. "Partidua oso zaila izango zela oso argi genuen. Hasierako tantoak oso parekatuak eta luzeak izan dira eta hori nabaritu egiten da partidua aurrera doan heinean", azaldu zigun amaieran Xabier Agirianok.

Iaz Debarroko finalean ere parte hartu zuten; horregatik, finala hasi aurretik txapelketa irabazteko faboritoak ziren. "Egia da gehienondako faboritoak ginela. Baina hori gero frontoian erakutsi behar da. Finalak, gainera, partidua bakarrera jokatzen dira eta edozer gerta liteke", azpimarratu ziguten irabazleek. Finaleko beste bikotearen inguruan ere galdetu genien: "Zubizarretak partidua bikaina jokatu du. Gu saiatu gara partidua aurreko koadroetan apurtzen", esan zuten.



ANDONI AZKARATE ETA AITOR MENDIZABAL |
ANTZUOLA

"Partidu hasieran tantoak erraz egin ditugu eta markagailuan abantaila hartu dugu. Baina Atxotegi eta Portuk pilota motela atera dute eta huts batzuk egin ditugu"

Aitor Mendizabal eta Andoni Azkaratek berehala hartu zuten abantaila markagailuan. Tanto motzen bidez 8-0 jarri ziren aurretik. "Partidu hasieran tantoak oso erraz egin ditugu, zortzi jarraian. Gero pilota aldatu dute eta partidua konplikatu egin zaigu. Pilota oso motela zen eta huts gehiegi egin ditugu jarraian. Sei tanto egin dituzte bata bestearen atzetik. 8-6 jarri dira markagailuan", esan zuen amaieran Aitor Mendizabalek.

Debarroko Txapelketako ligaxkan bi aldiz neurtu zituzten indarrak finaleko protagonistek; bikote bakoi-tzak garaipen bana eskuratu zuen. "Elkar ondo ezagutzen dugu. Ligaxkan ere bi aldiz jokatu dugu elkarren aurka. Atxotegi eta Portu bikote gogorra da. Egia esan, oso gustura gaude lortutako garaipenarekin", azaldu ziguten dutxara joan aurretik.



IBON ETA UNAI ERRASTI |
ARETXABALETA

"Finalean ez dugu guk dakigun bezala jokatu. Oso urduri hasi dugu partidua, eta, hasieran abantaila izan arren, 12-8 atzeratu garenean urduriago jarri gara"

Zortzigarren finala zuten domekan Ibon eta Unai Errastik. Jokaturako finaleratik bost irabazi zituzten, azkeneko hirurak jarraian. Atzo ez zuten hutsik egin. "Guretzat partidua garrantzitsua zen. Zortzigarren finala zelako eta batez ere Aretxabaletan jokatzen genuelako. Frontoia oso ondo ezagutzen dugu, askotan jokatu baitugu hemen. Baina norgehiagoka oso arraroa izan da. Hasierako tantotan gu jarri gara aurretik. Axpek eta Uribarrenek berdinketa lortu dute eta 12-8 jarri dira aurretik. Hori izan da, beharbada, guretzat partiduko unerik zailena. Baina gu ere gai izan gara markagailua berdintzeko", kontatu zigun Ibon Errastik.

Oso pozik jaso zituzten partidua amaieran antolatzailen emandako sariak: garaikurrak eta irabazleen txapelak.

Juan Mari, Ibon eta Unai Errastik urrezko intsigniak jaso zituzten

Hainbat urtetan pilotaren alde egindako lana eskertzeko, Aretxabaleta Kirol Elkarteak urrezko intsigniak jarri zizkien Errasti aita-emeiei.

Juan Mari Errastik 25 urte baino gehiago daramatza Aretxabaletako pilota sailean lanean. Eta ohore handia izan zen harendako intsignia jasotzea. "Egia esan, ez dut hitzik une honetan sentitzen dudana adierazteko. Ilusio handia egin dit intsignia jasotzea", adierazi zigun, emozionatuta, Juan Mari Errastik. Egun borobila izan zen Errasti familiarendako. Ibon eta Unai Errastik ere urrezko ikurra jaso zuten senior mailan egindako 10 urteengatik.

UDAK ere urrezko ikurra emango dio Joxe San Migeli, Andramari eguneko jaialdian izango da.



JUAN MARI ERRASTI | ANTOLATZAILE TALDEKOA

"Maila handiko finalak jokatu dituzte pilotariek"

Mireia Bikuña

Sari banaketa ekitaldia amaituta, Juan Mari Errastirekin berba egin genuen. Finalei buruz galdetu genion eta herri mailako pilotaren etorkizunaz ere bai.

Zer-nolako maila eman dute pilotariek gaurkoan?

Hiru partidua oso gogorak izan dira. Kadete mailako finalak erdi inguru arte oso tanto luzeak izan ditu. Arrasateko atzelaria, Bolinaga, asko nekatu da eta amaieran nabaritu egin du.

Gaske mailako finala oso parekatua izan da. Antzuolako aurrelari Mendizabalek joko ona egin du eta Azkarate atzelari ona da. Hasieratik haiek ziren faboritoak eta ez dute hutsik egin.

Senior mailako finalean ere nahiko urduri egon naiz. Semeak nahiko ondo ikusi ditut. Baina 12-8 galtzen egon direnean oso urduri jarri naiz. Zorionez gai izan dira finala irabazteko.

Gustura zaudete gaurko jaialdiarekin?

Egia esan bai, oso gustura gaude. Ikusle asko etorri da. Ez genuen hainbeste jende espero. Bestalde, oso garrantzitsua da pilotariendako jokatzen dabiltzanean harmailetan ikusleak egotea. Eta gaur zaleek ere erantzun dute.

Urrezko ikurra jaso duzu 25 urtetan pilotaren alde egindako lanagatik. Zein oroitzapen dituzu?

Oroitzapen asko ditut, batzuk txarrak, baina gehienak oso onak. Pilotaren alde horrenbesteko lana egin ondoren gauza bat dut argi: pilotari gazteekin lan egitea oso zaila dela. Eta, gainera, lan handia egin behar dela.

"Pilotari gazteendako gurasoen laguntza ezinbestekoa da"



Juan Mari Errasti.

25 urteko esperientzia izanda, etorkizunik ikusten al diozu pilotari?

Pilotak, beste kirol batzuen antzera, futbolarekin borrokatu behar du. Benjamin eta alebin mailetan pilotari asko dago. Baina alebin mailatik infantiletara salto egin behar dutenean futbola aukeratzeko dute.

Gaske batek pilota gustuko duenean gurasoek ematen dioten laguntza oso garrantzitsua da.

ARAMAIO | 28. ARRANTZA TXAPELKETA

40 neska-mutiko ibili ziren arrantzan Aramaioko errekan

Txikitxoan mailan Arrasateko Maialen Diazek irabazi zuen lehen saria eta nagusietan Iñigo Gartzia izan zen irabazlea

Arantzazu Ezkibel

Aramaioko Bizente Goikoetxea plazara 40 neska-mutiko hurbildu ziren zapatuan Arrantza txapelketan izena ematera.

Bi taldetan banatu zituzten parte-hartzaileak: txikien taldea (4-10 urte bitartekoak) eta nagusien taldea (11-16 urte bitartekoak). Txikien taldean 24 neska-mutiko aritu ziren, zein baino zein abilago.

Irabazlea Arrasateko Maialen Diaz izan zen. Maialenek bi amuarrain harrapatu zituen; bi piezek 325 gramoko pisua zuten. Bigarren Xabi Jauregi sailkatu zen. Xabik 285 gramoko pisua zuten bi amuarrain harrapatu zituen.

IRABAZLEAK HIRU AMUARRAIN Nagusietan, 16 gaztek eman zuten izena arrantza txapelketan. Irabazlea Iñigo Gartzia izan zen. Iñigok hiru amuarrain harrapatu zituen Aramaioko errekan; Salazan baserriaren eta Goiko Errotaren arteko tartean.

Bigarren sailkatua Iker Barbero izan zen. Hark ere hiru amuarrain harrapatu zituen, baina Iñigok hartutakoak baino pisu



Parte-hartzaileak, irabazitako sariekin, Oilgor elkartearen aurrealdean ageri dira.

txikiagokoak izan ziren; Iñigoren amuarrainek 430 gramo zituzten eta Ikerren amuarrainek, 345 gramo. Beste parte-hartzaileek bi pieza edo gutxiago hartu zituzten.

Txapelketa 13:00etan amaitu zen. Parte-hartzaile guztiak plazara agertu ziren eta Oilgor Ehi-za eta Arrantza Elkartearen pisatu zituzten harrapatutako amua-

rainak. Sari banaketa ere bertan izan zen.

GARAIKURRAK ETA ARRANTZARAKO MATERIALA Parte-hartzaile ia gehienek izan zuten saritxoa zapatuan Aramaion. Zazpi garaikur eta arrantzarako materiala zegoen aukeran; hau da, irabazleak sari guztien artean nahi zuena aukeratzeko posibilitatea izan zuten, guztien artean han zeuden sariak amaitu arte.

Txapelketarako, Oilgor Ehi-za eta Arrantza Elkarteak 70 kilo inguru amuarrain askatu zituen egubakoitz gauean Aramaioko Salazan eta Goiko Errota arteko erreka zatian.

Gaztetxo askorentzat arrantzan egiten zuten lehenengo aldia izan zen eta ezin hobeto pasatu zutela aitortu ziguten. Batzuek, gainera, harrapatutakoa bazkaritan jan behar zutela azaldu ziguten. Ondo merezitako bazkaria izan zuten gaztetxoek.

Oilgor elkartek 70 kilo amuarrain askatu zituen Aramaioko errekan

Parte-hartzaile ia gehienek izan zuten saritxoa zapatuan Aramaion

• ARRANTZA GUSTUKO DUTELA ESAN DIGUTE GAZTETXOEK



XABI ETA MAIALEN |
ARAMAIO ETA ARRASATE

Maialenek txikien lehenengo saria eraman zuen eta Xabik, berriz, bigarrena. "Lehenengo aldia da arrantzan egiten dudana eta bi amuarrain harrapatu ditut", esan zigun Maialenek. Xabirentzat ez zen lehenengo aldia izan zapatukoa. "Harrapatu duguna bazkaritan jan behar dugu", esan ziguten, pozik.



ENDIKA ETA IBAI |
ARAMAIO


Endikak amuarrain bat harrapatu zuen, baina berritxo ere errekarara botatzea erabaki zuen: "Oso txikia zen eta errekarara bota dut". Ibaik, berriz, ez zuen zortetik izan eta ezer harrapatu gabe itzuli zen errekatik. Urtean zehar ere arrantzan egiten dutela esan ziguten: "Batzuetan, Zanbranara joaten gara etxekoekin".



IKER, MARKEL ETA ESTEBAN |
ARRASATE ETA ARAMAIO

"Arrantza egitea asko gustatzen zaigu eta ahal dugunean arrantza egitera joaten gara errekarara", esan ziguten Iker, Markel eta Estebanek.

Esteban eta Ikerrek bi amuarrain harrapatu zituzten eta Markelek bakarrik hartu zuen. "Sari bezala kanabera bat hartu dut, eta oso pozik nago", esan zigun Estebanek.



PELLO ETA GURUTZ |
BERGARA ETA ARAMAIO

Pello eta Gurutzentzat ere lehenengo aldia izan zen arrantzan egiten zutena: "Lehenengo aldiz etorri gara eta oso ondo pasatu dugu".

Amuarrain bat harrapatu zuen Gurutzek, 115 gramokoa. "Datorren urtean ere txapelketara etortzeko gogoz gaude", esan ziguten bi gaztetxoek.

JOSETXO ARANTZABAL

Josean Mulas bergararrak 20 urte inguru darama eskalada munduan. Oñatiko Araotz eskalada eskolan bideak eraikitzen lehenengotarikoa izan zen Mulas. Hori dela-

eta, Federazioak Arrasateko teknifikazio zentroko ardura eman dio. Arrasatekoa Gipuzkoan dagoen teknifikazio zentro bakarra da. Bertan, zazpi mutil eta lau

neska txikiren ardura darama Joseanek. Ardura nagusia teknika irakastea da, eskalatzaile horiek kanpora ateratzen direnean trebatuak egoteko.

JOSEAN MULAS | ESKALADA TEKNIFIKAZIO ZENTROKO ARDURADUNA

"Teknika landuz gazteak eskaladan trebatzea da nire ardura"

Arantzazu Ezkibel

Zer da boulderra?

Hasiera batean eskaladan aritzeko entrenamendu hutsa zen. Baina orain modalitate bat da. Altuera txikiko tokietan eta sokarik gabe egiten den eskalada da. Boulderrean egiten diren mugimenduak muturreko mugimenduak dira; zailtasun handikoak dira. Mugimenduek graduazio bat dute (6A, 6C...) eta graduazio horien arabera zuk erabakitzen duzu bide bat egiteko gaitasuna duzun edo ez. Boulderrean mugimenduak zailagoak dira, baina, ere berean, altuera txikiagoan egonik, jausteko arriskua ere txikiagoa da. Adibide bat jartzeko, atletismoarekin alderatuz, 100 metroko lasterketa bat bezala da boulderra.

Esquetako edo hanketako indarra da garrantzitsuagoa eskalatzeko orduan?

Eskalatzaile batek hainbat ezaugarri izan behar ditu: bate-tik, pisua eta indarra orekatuta izan behar ditu. Bestetik, koordinazio ona eduki behar du eta, azkenik, hatzetan indar handia eduki behar du. Inoiz ez duzu eskalatzaile lodi bat ikusiko, pisua neurrian izan behar du eskalatzaileak.

Boulder sala egokiak daude gure ibarrean?

Esan daiteke Arrasaten dagoen boulder sala Euskadiko onenatarikoa dela. Boulder sala entrenamendu sala bat da, gero kanpora ateratzea bideratuko dizuna. Altuera txikia duen arren, diagonalean bide luzeak egin ditza-kezu. Bide ezberdinak margotu ditugu, eski estazioetan bezala, eta kolorearen arabera zailtasun handiagoa edo txikiagoa du.

Baina Arrasaten eskaladan dabilen jende guztia kontuan hartuta, Uarkape leku txikia da. Ez du nahi besteko altuerarik eta hemen soka nola erabili ezin da erakutsi. Korapiloak nola egin irakasten diet, baina gero soka-

rekin igotzeko lekurik ez daukagu. Akatsa non dagoen esatea zaila da. Federazioa ez da leku guztietara heltzen eta udaletan ez dute eskalada mundua ezagutzen.

Zer da Arrasateko teknifikazio zentroa eta zer ardura daukazu bertan?

Nik teknifikazio zentroaren ardura daukat. Urte askotako esperientzia dut eskaladan; lehenengo, maila nazionalean lehiatzen hasi nintzen eta gero Euskadiko lehenengo txapelketak antolatzen. Araozko eskolan bertan lehenengo bideak nik eta nire lagunek ireki genituen.


Federazioak lehendakaritza taldea aldatu zuenean, gazteentzat teknifikazio zentro bat irekitzea pentsatu zuen eta niri eman zidaten horren ardura. Gipuzkoa mailan, Arrasate da gazte gehien mugitzen duen herria. Arrasateko teknifikazio zentroan 15-20 urteko zazpi mutil ditut nire ardurapean eta lau neska txiki. Hilean 24 ordu ematen ditut gazteak entrenatzen, eta, horren arabera, Federazioak soldata bat ematen dit.

Beraz, gazteak eskalada munduan trebatzeaz arduratzen zara.

Bai, Federazioak gazteen entrenatzaile bezala jarri nau. Ez dira entrenamendu normalak,

"Garrantzitsuena pisua eta indarra orekatuta izatea da; eskalatzaile lodirik ez dago"

"Esan daiteke Arrasaten dagoen boulder sala Euskadiko onenatarikoa dela"



Joseanek Udaleko arduradunei eskatu nahi die eskaladaz gehiago arduratzeko.

rekin gehienbat teknika erakusten diet: soka nola erabili jakitea oso garrantzitsua da. Boulderrean sokarik ez erabili arren, Araotzera joanez gero soka nola erabili jakitea beharrezkoa da. **Material aldetik ondo prestatuta ibiltzen al da jendea eskalatzeko?**

"Boulderra eskalatzeko entrenamendua zen; orain modalitatea da"

"Araotz nire bigarren etxea da; hara eramaten ditut kanpotik datozen lagunak"

Hori da Federazioak hobetu nahi duen alderdi bat. Aurrekontu handiagoa izanez gero, elkarrean laguntzarekin, herri gehiagotan sortuko lirateke teknifikazio zentroak. Baina oraingoz, poliki-poliki hasi dira eta Arrasatekoa da Gipuzkoan dagoen teknifikazio zentro bakarra.

Nik gazteak hartu eta trebatu egiten ditut. Garrantzitsuena kanpora ateratzen direnean zer egin behar duten jakitea da. **Negu partean barruan ibiliko zarete gehienbat eta udan kanpoan.**

Noski, eskalada munduak lotura zuzena du naturarekin. Orain egiten ari den eguraldiarekin, normala da kanpora atera nahi izatea, hemen barruan gelditu beharrean. Neguan, ordea, barruan egoten gara denbora luzeago.

Zuk asko eskalatzeko al duzu?

Bai, ia bizitza osoa daramat eskalatzeko. Beti esan ohi dut ni noan lekura soka eta katu oinak

ere nirekin doazela. Nire opor garaia ere eskaladaren inguruan antolatzen dut.

Bizitza modu bat dela esan daiteke. Nik Bergaran nire lagunak ditut, baina beste leku askotan ere lagun handiak ditut. Eskalatzera joaten naizen tokietan jende asko ezagutu dut.

Eta nora eramaten dituzu kanpotik etortzen diren lagunak?

Lehenengo Araotzera eramaten ditut, nire bigarren etxea dela esan daiteke. Bertan dauden 500 bideetatik, nire lagunak eta nire artean 250 bat bide irekiko genituen. Baina orokorrean inguruan dauden eskalatzeko toki guztiak erakusten dizkiet.

Euskal Herrian zeintzuk dira eskalatzaile onenak?

Niri ez zait onena nor den esatea gustatzen, nik nahiago dut eskalatzaile onez hitz egitea. Gaur egun, Usabiaga, Rikardo Otegi, Bereziartua eta Iker Pou dira gorengo mailan daudenak.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Aukeran dantza taldeak 'Bideak' lan berria aurkeztuko du eguenean, Kursaaen | 23
- Arrasateko zeramika ikasleek erakusketa zabalduko dute bihar, Monterronen | 27

Usoa Mendikute margolariarekin Bergaran ireki duen erakusketa jardun dugu | 26

BERGARAKO ORFEOIA ETA MUSIKA ESKOLA



JOSETXO ARANTZABAL

Emanaldiaren bigarren zatian Bergarako Orfeoia eta Musika Eskolako ikasleak batera aritu ziren.

MUSIKA IKASLEAK ETA ORFEOIA | MARIAREN LAGUNDIKO ELIZAN EGIN ZUTEN IKASTURTE AMAIERAKO KONTZERTUA

Ikasturte amaierako emaitza onak agerian laga zituzten ikasleek

Bergarako Musika Eskolako kantu ikasleek eta hari taldeak jardun zuten zapatuko emanaldiko lehenengo zatian. Bigarren zatian, berriz, Bergarako Orfeoia batu zitzairen aurreko guztiei

Goreti Elortza

Zapatuan 20:00etan egin zuten emanaldia Mariaren Lagundiko elizan. Jende ugari batu zen ikasturte amaierako kontzertura.

Bosgarren urtez elkarrekin aritu ziren Musika Eskolako ikasleak eta Bergarako Orfeoiko kideak. Eta urtean zehar egindako lanak izandako emaitza onak agerian gelditu ziren.

Emanaldiaren lehenengo zatian, Musika Eskolako kantu ikasleek jardun zuten jendarearen kantuan. Jendearen artean aldarearentz abiatu ziren *For the beauty of the earth* J. Rutterren abestia kantatzen zuten bitartean. Segidan, banaka zein binaka sei kantu eskaini zituz-

ten pianoaren laguntza soilarekin. Ainhoa Enatarrriaga, Amaia Urdangarin eta M. Jesus Ugalde izan ziren piano-jotzaileak.

Oihane Toledo eta M. Jesus Ugalderekin ikasleak fin aritu ziren W.A. Mozarten eta C. Monteverdiren kantuak abesten, besteak beste. Adin askotariko neska-mutilek hizkuntza askotan kantatzeko gaitasuna dutela erakutsi zuten. *La calonnina é un venticello*, *All I ask of you*, *L'incoronazione di Popea* eta *Verwandlung* izan ziren batzuk.

Segidan, Musika Eskolako talde instrumentalak W.A. Mozarten *Aria de Sarastro* (*Txi-rula Magikoa*), *Su l'aria* (*Le Nozze di Figaro*) eta *O sole mio* kantu herrikoia eskaini zituen, kan-

tu ikasleekin batera. Biolinak, biolak, klarineteak, oboeak eta biolontxeloeak osatutako taldea zen. Opera, musikalak zein antzinarako musika eskaini zuten.

Kantu ikasleek, bakarka zein binaka, hango ikusleak aho zabalik utzi zituzten

Orfeoia kantu elizkoiak abestu zituen opor aurreko azken saioan

ORFEOIA BIGARREN ZATIAN

Emanaldiaren bigarren zatian Bergarako Orfeoia hiru abesti eskaini zituen Aitor Biain oñatiar gaztearen zuzendaritzapean. *Misa en Mi b M*; *Kirie*, *Sanctus* F. Gorritirena, *Beatus Vir* Monteverdiren eta Jabier Bustoren *Ave Maria* izan ziren zapatuko kontzerturako aukeratu zituzten kantuak.

Abesti guztietan Musika Eskolako bakarlarik eta hari taldearen laguntza izan zuen Orfeoia. Bakarlarik Nere Ibarra eta Isabel Juldain sopranoak, Ainara Uribealzo eta Miren Azkarate mezzosopranoak eta Karlos Etxaniz baxua izan ziren. Gainera, Ander Simal piano-jotzailea ere aritu zen eurekin.

BERGARAKO ORFEOIA ETA MUSIKA ESKOLA

• BEGARAKO MUSIKA ESKOLAKOAK ETA ORFEOIA



MUSIKA ESKOLAKOAK. Isabel Juldain, Miren Azkarate, Argiñe Agirrezabal, Nere Ibarra, Karlos Etxaniz, Iñaki Mendia, Ainara Uribesalgo, Amaia Urdangarin eta Fran Martinez bikain aritu ziren bakarka eta binakako saioetan. Talde instrumentala biolin, biola, biolontxelo, klarinete eta oboeak osatu zuten. Euren lana ere bikaina izan zen zapatuan.



BERGARAKO ORFEOIA. Aitor Biain oñatiarraren zuzendaritzapean hiru kantu eskaini zituen Bergarako Orfeoia kontzertuaren bigarren zatian. Lehenengo zatian aritutako Musika Eskolako kantu ikasleen eta hari taldearen laguntza ere izan zuten. Guztien artean kantu elizkoiak abestu zituzten, ikusleen gozamerako, Mariaren Lagundiko elizan.

AITOR BIAIN | BERGARAKO ORFEOIKO ZUZENDARIA

“Datorren urtean ere jarraituko dut Orfeoiarekin”

Goreti Elortza

23 urteko oñatiar hau Bergarako Orfeoian zuzendari dabil azkenaldian, beste gauza askoren artean. Bada, zapatuko kontzertuaren ostean Biainekin hitz egin genuen.

Noiz hartu zenuen taldea?

Aurtengo otsailean hasi nintzen zuzendari lanetan. David Azurtzak komentatu zidan eta baiezkoa eman nion. Aukera ona iruditu zitzaidan-eta.

Gustura orain arteko lanarekin?

Oso gustura nabil Orfeoiarekin, bost hilabete hauek oso positiboak izan dira niretzat. Orain arte David Azurtzaren proiektuekin ibili gara, baina aurrerago nire proiektu batzuk ere aurrera eramateko asmoa daukat. Jendearekin ere ez dut arazorik izan.

Non dabil David Azurtza? Itzuliko al da datorren urtean?

Madriren ibili da oraintsu arte opera batzuk egiten eta beste proiektu batzuetan murgilduta. Itzuli da, baina datorren urtean ere nik jarraituko dut Bergarako Orfeoia zuzentzen.



AITOR BIAIN

Oñatiko Ganbaran kantuan, Ganbara Txiki eta Txikitxon zuzendari, Orfeoian... Zer gehiago?

Bai, denetik pixka bat. (Barreak) Oñatiko kantu tailerren ere badihardut eta Gabero abesbatzako zuzendari ere banaiz. Arrasateko Goikobalu eta Bergarako Orfeoiko kideek osatzen dute abesbatza hori. *Afrika* obrarekin aritu gara orain arte.

Ba al duzu guztientzako denbora?

Denerako denbora izaten saiatzen naiz. Eta gustukoa dudanez, izaten dut denbora.

Zapatukoa izan al zen opor aurreko azken emanaldia?

Bai, orain merezitako oporrak izango ditugu. Eta bueltan proiektu berriak aurrera ateratzeko prest izango gara guztiok.

Seussen Mundua izeneko lan handiarekin ere bazabiltzate; noizko Bergaran?

Udazkenean izango gara Bergaran, azaroaren 12an, hain justu. Printzipioz bi emanaldi egingo ditugu egun berean, Udal Pilotalekuan. Dekoratu berezia izango da, lekuari egokitua.

Zuzentzen edo kantuan hobeto?

Bi gauzak ditut gustuko. Musika dut gustuko eta horrek dakarren guztia.

“Saiatzen naiz denerako denbora izaten. Gustukoa izanez gero ez da horren zaila izaten”

“Azaroaren 12an aurkeztuko dugu 'Seussen Mundua' obra Bergarako pilotalekuan”



Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin

RAFA RUEDA | 'UDAKO GAUAK' ZUZENeko SORTAKO LEHENA EGUBAKOITZEAN

Bakarkako bidean, pop moldeko bitxi sortarekin etorri zen Espoloiria Rueda

'Saredun eskua' disko berria aurkeztu zuen mungiarrek egubakoitzean Bergaran

Hasi dira Espoloiko 'Musika gauak' eta oraingo egubakoitzean Malaturen jazz egongo da

Jon Berezibar

Rafa Ruedak egubakoitzean egin dako kontzertuarekin hasi dira aurtengo *Udako gauak* Espoloiari, Bergaran. Mungiarrek *Saredun eskua* azken lana aurkeztu zuen Espoloiko kioskoan, banda guztiarekin, eta soinu dotore bezain intentsoarekin. Pop doinuei darien itsaskortasuna ondo erabilita eta Pi.L.T taldeko garaietatik jasotako intentsitateaz oraindik ahaztu barik, egubakoitz gaubela polita egin zuen Ruedak. Haren abestiak amu nahikoa ez baziren izan, banda bikaina arduratu zen bestela soinu benetan erakargarria sortez. Pena bakarria izan zen ikusleak kioskoan barandak zirela eta gutxi ikusi ahal izan zuela, baina entzun bikain entzun zen egubakoitzekoa.

URRATSA AURRERA

Aurreko diskotik, *Kea* izenekoa, musika kontuetan Ruedak egin dako norabide aldaketa agerikoa izan zen. Poparen bide erakargarria aukeratuta debutarekin frogatu zuen molde hartako jantziak ere ondo geratzen zitzaizkiola. Bergaran bigarren saikera aurkeztu zuen, *Saredun eskua*, aurrera urrats bat gehia-

go eginda. Poparen nahia abesti borobilaren bila joatea bada, Ruedak badakar bere sortatxo besapean, eta gozagarria izan zen oso egubakoitzekoa.

Abestiak, alde batetik, baina bandak ere bilgarri ederra eskaintzen die mungiarren konposizioei. Hala, Mikel Azpirozek teklatuekin berebiziko intentsitatea eman zien abestiei. Zer esanik ez Rufo Urbinaren ekarpenaz, bateriaren jaun eta jabe, hamaika estilotan onduta dagoela erakutsi zuen. Hirugarren kidea David Gonzalez izan zen - baxuan -, Ruedaren aspaldiko laguna.

Datozenak**UZTAILAK 14**

• 22:30: Malatu, jazz emanaldia egingo dute.

UZTAILAK 21

• 22:30: Four Friends, jazz eta bluesa pop-rock ukituekin.

UZTAILAK 28

• 22:30: Ortophonk, Gasteizko funkya.



Bi diskoei gainbegiratu polita egin zien Ruedak egubakoitzean.

JOSETXO ARANTZABAL

Rock-and-rolla berriz Gaztelekuan

60 hamarkadan hasi eta 80ko punkeraino, rock-and-rollaren historiako lezio txiki bat osatu zuten zapatuko taldeek

Asteleheneko Goienkaria

Rock-and-rolla jabetu zen beste behin ere zapatu gauean Oñatiko Gaztelekuaz. Egurra ederto eman zuten hiru taldek osatu

zuten kartela: Sexy Sexer beratik, Los Chuloputas herritik eta Monky Day Kataluniatik.

60 hamarkadako doinuetatik hasi eta 80ko punkera arte hiru taldeetako bakoitzak hamarkada bakoitzeko zukuia ekartzen jakin zuten.

BERATARRAK ESZENAN

Sexy Sexereseko nafarrak ere aski ezagunak ditugu geurean eta zapatukoan ere ikuskizun ederra eman zuten, dakiten moduan. Etxeko taldearen egurra ere oso aipatzekoa izan zen.



Herriko Los Chuloputasek egin zituen anfitrioi lanak.

JOSETXO ARANTZABAL

DANTZA IKUSKIZUNA | AUKERAN DANTZA TALDEA

'Bideak' ikuskizun berria estreinatuko du eguenean

Kursaalen estreinatuko dute Bergarako Edu Muruamendiaraz dantza zuzendari eta koreografoaren lan berria. Urnietan egin zuten aurre-estreinaldia, atzo

M.B.

Edu Muruamendiaraz ez da geldi egotekoa eta dagoeneko prest du ikuskizun berria Aukeran dantza taldearekin. *Bideak* du izena eta eguenean estreinatuko dute Kursaalen, Donostiako Antzerki azokaren barruan. Aurre-estreinaldia atzo egin zuten, Urnietako Sarobe aretoan.

SANTIAGOKO BIDEA

Aurten Gipuzkoako hainbat herririk sortu zireneko 750. urtemuga ospatzen dute. Hala, hori abiapuntutzat hartuta Erdi Aroko mundua nolakoa zen irudikatu nahian, herriak eta hiriak lotzen zituzten bideak ditu hizpide ikuskizunak. Eta bideetan ematen zen kultura elkartrukean zentratzen da. Garrantzitsuena Santiagoko bidea izan zen, hark jarri zituelako harremanetan hiriburuak eta Europako musika eta dantzak euskal ohiturekin uztartzea ahalbidetu zuelako. Hala, Santiagoko bidea metafora gisa erabilia ikuskizunak hiru une lantzen ditu: batetik, bidearen hasiera, jaiotza, irudikatzen dute ikuskizunaren hasieran. Gero, soka dantzaz baliatuz, pertsonen arteko sozializazio prozesua eta herrien eraikuntza erakusten dute. Horrekin batera, bizitzan dauden bide ezberdinak irudikatu nahian, festa, maitasuna eta gudarako bideak erakutsiko dituzte. Emanaldiari amaiera emateko, bide guztiek komunean dituzten elementuak elkartzen dituzte beste koreografia baten.

DANTZA TRADIZIONALA ETA GARAIKIDEA

Dantza tradizionala eta garai-kidea bateratzea da taldearen ezaugarrietako bat eta lan berrian ere -aurreko bietan bezala: *Sutargi* eta *Izena duen guztia omen da*- eutsi egin diote horri. Bestalde, ikuskizun



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Irudian Edu Muruamendiaraz zuzendari bergarra lan berriko une batean.

honetan kirol akrobaziak ere sartu dituzte.

Musikari dagokionez, aurreko ikuskizunetan zuzeneko musikarekin lan egin izan duten arren, oraingoan grabatutako musikarekin arituko dira. Shan-

ti Basauri musikagile bilbotarrak konposatu du *Bideak* ikuskizunerako musika.

IRAILEAN ELGETAN

Egueneko estreinaldiaren ondotik, honezkero hitzartuta ditzu-

te emanaldiak Tolosan eta Zea-nurin.

Gurera ere etorriko dira. Irailaren 30ean, hain justu ere, Elgetako Espaloia kafe antzokian ikusteko aukera izango ditugu Aukeran dantza taldekoak.

Fitxa teknikoa

- **KOREOGRAFIA ETA ZUZENDARITZA:** Edu Muruamendiaraz.
- **GIDOIAK ETA ESZENA ZUZENDARIAK:** Garbi Losada eta Jose Angel Vitoria.
- **DANTZARIAK:** Iurre Aranburu, Onintza Odriozola, Naikari Galarraga, Naia Yarritu, Garazi Lekuona, Ane Anza, Aiert Beobide, Gotzon Poza, Ander Errasti eta Edu Muruamendiaraz.
- **MUSIKA:** Shanti Basauri.
- **JANTZIAK:** Ramon Gartzia Zabalegi.
- **EKOIZPENA:** Aukeran Dantza Taldea.
- **EKOIZPEN LAGUNTZAILEA:** Iker Muruamendiaraz.

**Irailaren 30ean
Espaloia antzokira
ekarriko du
Aukeran taldeak
'Bideak' ikuskizuna**

MUSIKA |
ZURA TALDEA


Lorca, Lauaxeta eta Gandiagaren topagune izan zen gaztetxea

Non. Bergarako gaztetxean.
Iraupena. Ordu eta erdi inguru.
Zenbat jende. 40 bat lagun.

M.B.

Zapatu gaeen egin zuen emanaldia Zura taldeak Bergarako gaztetxean. *Drum n'bass* pixka batekin ekin zioten emanaldia-ri, giroa berotzen joateko. Horren ondotik, Gartzia Lorcaren *Cancion del jinete* poesiaren pasartea errexitatu eta *Ilargi handi zauri zarae* diskoko kantuak entzun ahal izan zituzten hara bertaratutakoek; hain justu ere, Lorca, Lauaxeta eta Gandiagaren poema musikatuak.

Horiexek dira Dut taldeko Xabi Strubellen bakarkako egitasmo horrek batzen dituen poetak, baina Bergarako zuzeneko emanaldian Gabriel Aresti ere ekarri zuten gogora. Hain justu, idazle bilbotarraren olerkiekin eta tronboi pistoi-gabearekin itxi zuten emanaldia.



Zura taldea Bergarako gaztetxean.

DEIALDI PUBLIKOA


**Bergarako Udalak kaleratu du
Gazteentzako informazio guneko zerbitzua
lehiaketa bidez kontratatzeko deialdi publikoa
(GAO 2006/07/05, 127 ZKIA).**

Instantziak aurkezteko epea
2006ko uztailaren 20an amaitzen da.



Bergarako Udala


Informazio gehiago: Kultura etxea. Tel.: 943 77 91 60
www.bergara.net



UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



KOMUNIKATUTA EGOTEA KOMENI. 2004ko abuztuan Thailandian izan zen bergarar hau. Monje ugari ikusi zituen errezoan eta eskean; baita bakanen bat poltsikokotik berba egiten ere. /Argazkia: Mikel Elkoro /Bergara



ARRANTZA. Sineseko portuan egin zuten argazki hau, 2005. urteko abuztuan. Besteak beste, mariskoa hartzeko sareak ikusi zituen bergarar honek. /Argazkia: Mireia Larrea /Bergara



EBRO IBAIA. 2004ko uztailean Delta de l'Ebren ateratako argazkia da. Bertan, nekazariak ageri dira arroza batzen. Lurralde hartan Ebro ibaiak duen garrantzia izugarria da. /Argazkia: Amaia Goitia /Oñati



BEGIRADA GARBIA. Dominikar Errepublikara joan eta itsasoaz eta naturaz gozatzeaz gain, herritarren xarmak erakarri zuen bergarar hau; irudiko umearen begiradak, esaterako. /Argazkia: Mikel Arregi /Bergara

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2006ko irailaren 18a.

Sariak:

- **1. saria:** Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala, bi objektibo aldagarriekin Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela. Barceló Bidaiek agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagak Gure Ametsa jatetxean.




Babeslea:

 **kutxa**

Laguntzaileak:



Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK

ESTRADOS
www.consultoria.estrados.com

ANTZINAKO ALTZARIAK

ZUMADIA
www.zumadia.com

AKADEMIAK

BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK

BZ-SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

MARRUBI
www.marrubi.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK

MARIA JESUS
www.mjargazki.com

ARROZTEGIAK

ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi

AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

ASEGURUAK

BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak

WINTERTHUR
www.winterthur.es

AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA

AUTOS ARETXA S.L
www.autosaretxa.com

AUTOS RIBEGOLA -BMW-
www.autos-ribegola.com

GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi

AUTO-KONTZESIONARIOAK

4QUATTRO 4
www.goiena.net/blogak/4quattro4

BIDAIA AGENTZIAK

BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA

OSCAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK

ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK

SETALDE
www.setalde.com

ERAIKUNTZAK

CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK

PANDO
www.goiena.net/blogak/pando

ESTETIKA ZENTROAK

ANGELA
www.angelaestetika.net

GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder

LILURA
www.lilura.com

MAIER

www.goiena.net/blogak/richimaier

GARBIKETAK

HEMEN
www.hemen-garbiaketak.com

GIMNASIOAK

IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport

HARATEGIAK

LANDALUZE
www.landaluze.com

HAUR PARKEAK

OKIPARK S.L.
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEAK

URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK

CIM-ONATI BAI & BY
www.cim-idiomas.com

HOTELAK

HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

ILE APAINDEGIAK

RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

INFORMATIKA

DCA COMPANY
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOAK

HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIARIK

ANBOTO
www.inmoarrasate.com

ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com

KOROSTI
www.inmokorosti.com

UDALATX
www.goiena.net/blogak/udalatx

JANARIAK

GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK

MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi

UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK

BASTER ALDE
www.baster-alde.com

DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena

MAULANDA
www.goiena.net/blogak/maulanda

LANTEGI ETA TAILERRAK

TALLERES CARPINS S.L.
www.carpinsa.com

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik

EGO

www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK

EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore

MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK

KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OPARIAK

MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multipticas

OSTALARITZA

GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

PUBLIZITATE AGENTZIAK

ADOX
www.adoxnet.com

SKATE&SNOW

LAINO
www.laino.info

SUKALDEKO ALTZARIAK

BASTIDA SUKALDEAK
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK

EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea

ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK

GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesha

TAXIAK

GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK

GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA
www.aizue.com

UMEENDAKO ARROPA

HAURTXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERBITZU DIGITALAK

ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILEA

ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

Bergarra da, gaur egun Londresen bizi den arren. Kafetegi batean dihardu enkargatu, baina bere pasioa margotzea da. Bergaran dago egunotan eta Aroztegi

aretoan *Koloretako mundua* izeneko erakusketa jarri du. *Pop art* mugimendua da bere lanen oinarri eta margotzeak beste mundu batera erooten duela dio. Oso

koloretsua da haren lana, kolore askorekin margotzeak energia oso positiboa ematen diolako; ikusleei transmititu nahi dien energia positibo bera, hain justu.

USOA MENDIKUTE | MARGOLARIA

"Guztiendako artea egin behar dela uste dut, ez jende multzo txiki batendako bakarrik"

Monika Belastegi

Zer moduz Londresen?

Gustura nago. Ez dihardut ehuneko ehunean artearen munduan, baina sartzen dut sudurra han eta hemen. Azken batean uste dut hori dela artistak egin behar duena: bere izena eta lana ezagutzera eman. Koadroak etxetik ez badituzu ateratzen, bazara artista, noski, baina norberaren burua saltzen jakin behar dela uste dut. **Bi urte dira Bergaran, jaioterrian, ez zenuela erakusketarik egiten.**

Bai, Nahikari tabernan egin nuen duela bi urte. Orain Aroztegin dudaren oso ezberdina izan zen hura; are gehiago, normalean egiten dudanetik asko urrundu zen hura, proba antzekoa izan zen eta ez nintzen oso gustura geratu. Nire ohiko estiloan gusturago nago.

Zure ohiko estiloko azken erakusketa kultura etxean egin zenuen duela bost bat urte. Hura ikusi eta egunotan Aroztegin duzuna, eta Usoa bera ikusi dut nik.

Bai. Oso partikularrak dira margoak. Kolorea da gehien nabarmentzen dena.

Hain justu, *Koloretako mundua* izena jarri diozu erakusketari.

Egia da. Ez nion erakusketari halako izen mistikorik jarri nahi. Batzuek egiten dute, baina niri ez zait gustatzen; jendeari ulertarazi nahi diot margotzen dudana: margoetan adierazi nahi dudana ulertzea nahi dut.

Mundua koloretakoa da, hortaz.

Denetarik dago munduan, poztasuna eta tristezia, askotariko arazoak... Eta batik bat agerian dagoena da, eta komunikabideek ere hala azpimarratzen dute, tris-

tezia. Baina uste dut gauza negatibo guztiei positibotasuna topatzen saiatu behar dela. Margotzeak beste mundu batera erooten nau eta kolore askorekin margotzeak energia positiboa ematen dit.

Eta ikusleengana ere iristen da energia positibo hori?

Uste dut baietz eta horixe da, hain justu, nahi dudana, energia positibo hori transmititzea. Gainera, edonorendako margo mota da. Ez da batere elitista, hau da, artista deitzen zaien jende kopuru murriz batendako lana. Edonorengana iristeko moduko estiloa dela uste dut. Guztiendako artea egin behar dela uste dut, eta ez aditu multzo txiki batendako.

Pop art delakoan koka dezakeguzure lana. Jarraitzaile asko ditu?

Uste dut gaur egungo gizartean guztia onartzen dela janzkeran,

dekorazioan, musikan, artean... Askotariko estilo nahasketak izaten dira, oso sasoi sortzailea bizi dugula uste dut.

Alde horretatik, Londresen bizitzea lagungarri egin zaizu?

Uste dut baietz. Asko zabaltzen zaitu halako hiri baten bizitzeak, arraza, kultura eta erlijio asko daudelako batuta. Asko ematen du horrek. Erlijio ezberdineko lagunak ditut han eta nire lana gustuko dute; halaxe esan didate, behintzat.

Bergaran egunotan duzun erakusketak ere kritika onak jaso ditu.

Orain arte bai, behintzat. Jendeak esan dit batez ere koloreengatik gustatu zaiela eta orijinaltasuna ere azpimarratu dute. Izan ere, margoetako batzuetan *Pop art* oso garbia erakusten dut, baina beste batzuetan ez, beste elementu batzuk gehitzen dizkiet. Esaterako, bada koadro bat non nik horma soil bat erakusten baitut, nik horma zati bat margotu dut, baina itzal bat ere ageri da, nahiz eta itzala, berez, ez den gauza fisikoa eta ezin den margotu.

Londresen ere egin dituzue erakusketak. Ez da erraza izango halako hiri handi baten bidea egitea.

Bada, ez. Gainera, kafetegi batean egiten dut lan eta ez dut aukera handirik artistekin harremanetan jartzeko. Dena den, ezin naiz kexatu. Bada hilabetekari bat, *AN Magazine* izenekoa, eta han taldean egiteko erakusketen berri dakar, beken berri, lehiaketan berri... Eta horren bitartez erakutsi izan ditut nire lanak. Baina han guztia da dirua. Lehiaketetan parte hartzeko ere ordaindu egin behar da: aurkezten duzun koadro bakoitzeko 15 bat euro, eta, gainera,



Usua Mendikute, Aroztegi aretoan.

ez dakizu aukeratuko zaituzten. Galeriak alokatzea ere oso garestia da: erdigunean, asteko 1.500 euro ordaindu behar dira. Horregatik, esandako aldizkarira jotzen dut eta hark antolatzen dituen erakusketa irekietan hartzen dut parte beste margolari batzuekin

batera. Arte feria bat ere badago eta han ere erakutsi izan dut.

Bergarako Aroztegi aretoan erakusketaren ondotik zer asmo duzu?

Oraindik ez dut garbi; izan ere, ehuneko ehun jarri dut Bergarako erakusketan.

Eta zer iruditu zaizu Aroztegi aretoa?

Oso polita. Oso egokia da margolanak erakusteko eta kokapena ere oso ona da. Herriko plazan bertan dagoela esan daiteke, eta, aurretik jende asko pasatzen denez, bada, sartzera animatzen dira.

Epe luzerako asmoez berba egin-go bagenu?

Amets bat kontatuko nizuke. Esan dizut kafetegi batean dihardudala enkargatu gisa. Bada, kafetegi bat izatea nahiko nuke jende gazteari, margolari hasiberriei euren lanak doan erakusteko aukera emateko. Askotan nahi izan dut nik aukera hori izatea; hortaz, beste batzuei aukera hori eman gurako nieke. Bergarako Nahikari tabernako Bitorrek egiten duen moduan. Hori oso positiboa da. Margolari gazteek, bestela, oso aukera gutxi izaten dute.

"Artistak bere izena eta lana ezagutzera eman behar ditu; bere burua saltzen jakin behar duela uste dut"


"Kafetegi antzekoa eduki nahiko nuke, margolari gazteei euren lana erakusteko aukera eman ahal izateko"

Aroztegi aretoan hilaren 30era arte

Groucho I eta II, Turkoa, Aita-semeak, Vietnam, Andrea, Lingerie eta beste hainbat lan eskegi ditu Usua Mendikutek Bergarako Aroztegi aretoan paretetan.

Pop art garbiaren adierazgarri dira batzuk, baina bestelako elementuak ere gehitu dizkie hainbati. Kritika onak izan ditu oraingoz, eta oso pozik dago; saldu ere saldu ditu batzuk. Duela bi urte erakutsi zuen azkenekoz Bergaran, eta bazuen gogoia jaioterrian beste erakusketa bat egiteko. Gainera, erakusketa honetan "ehuneko ehuna" jarri duela esan digu.

Uztailaren 30era arte egongo da Mendikuteren lana ikusgai Aroztegin. Astegunetan, 18:30etik 21:00etara; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.



Xabin Egaña debagoiendar artistaren atzera begirako erakusketa eskatu dute

Maiatzaren 16an hil zen artista oñatiarra, eta haren omenezko erakusketa zabaldu dute Gasteizen beste 25 artistak

Leire Kortabarria

Xabin Egaña oñatiar artista maiatzaren 19an hil zen. Orduz geroztik, haren omenezko hainbat ekintza egin dituzte, eta azkeneko da 25 artistak Egañaren oroimenez prestatu duten erakusketa. Gasteizko Zuloa aretoan (Hedegile kalean, Correrias) zabaldu dute, eta irailaren 16ra arte dago bisitatzeko modua. Horrez gain, artistek eskaera bat egin diete erakundeek: Xabin Egañaren atzera begirako erakusketa antolatzea, eta haren lana ikertzea eta zabaltzea.

Margolanak, eskulturak eta marrazkiak batu dituzte 25 artista horiek; erakusketa horretarako propio egindako

artelanak dira, gainera. Artista oñatiarrarekin modu bateko edo beste zerikusia dute lanek, eta haren heriotzak utzitako hutsuneak eragin dizkien sentimenduak adierazten dituzte artelanen bidez.

Xabin Egaña oñatiarra 48 urte zituela hil zen, artean lan oparoa egin ondoren. Azken asteotan bestelako omenaldiak ere egin dizkiote: besteak beste, Ruper Ordorika oñatiarra eta Garik kontzertua egin zuten, eta Egañak grabatutako bideo-klip bat erakutsi zuten.

ANTONIO OTEITZA

Bestelako erakusketak ere badaude inguruan. Beste artista ezagun batek, Antonio Oteitza donostiarrak, eskultura lanak ditu erakusketan Arrasateko Arregi markoztatze denda. Brontzeko hogeitatu eskultura espresionista dira, motibo erlijiosoetan eta herrikoietan inspiratutako artelanak.

Jorge Oteitzaren anaia da Antonio. Monje kaputxinoa da, eta arte erlijiosoan oinarritu du ibilbide artistikoaren zatirik handiena.

Hitzorduak



EMANALDIZ BETETA DATOR 'KALEAN', OÑATIKO UDAKO KULTURA ESKAINTZA | Uztaila eta iraileko asteburu guztietan izango dira kontzertuak, antzerkia edo jaiak

Oñatiko gaztelekuak Kalean izeneko udako kultura programa aurkeztu du. Izan ere, lehenengo emanaldia joan den zapatuan izan zen, kontzertu bat. Uztail eta irail osoan izango da zerekin gozatu.

Hala, asteburu batzuetan jaiak izango dira Oñatiko auzo edo kaleetan -Trianaok datorren aste-

buruan-, eta besteetan emanaldiak izango dira. Hurrengo Sugañ talde goierriarrarena izango da, uztailaren 28an, egubakoitza. Horrez gain, The Hot Dogs (argazkian) edo Randy the Band taldeek eta Danni Leigh rock-country abeslari estatubatuarrek ere bisitatuko dute Oñati.

Labur

Film onenaren Oscar sariduna, 'Crash', emango dute Eskoriatzan

Orain azkeneko Hollywoodeko Oscar sarietako ikur nagusia, urteko film onenaren Oscarra, irabazi zuen lana emango dute gaur, astelehena, Eskoriatzako plazan: *Crash* filma. 22:30ean hasiko da emanaldia.

Istoria korala da *Crash*. Los Angelesen gertatzen da. Elkarrekin zerikusirik ez duten hainbat pertsonaia bata bestearen bizitzan sartuko dira, eta horrek bakoitzaren bizitza aldatu egingo du. Matt Dillon eta Sandra Bullock dira aktoreetako batzuk.

Arrasateko zeramika ikasleek erakusketa zabalduko dute bihar

Arrasateko Loixe zeramika elkarteak erakusketa zabalduko du bihar, martitzena, Monterongo erakusketa aretoan. Hilaren 25era arte egongo da zabalik.

Elkarte horren hirugarren erakusketa da hori. Bukatu berri den ikastaroan, 15 ikasle ibili dira Loixen, eta horien 50 bat lan batu dituzte erakusketarako. Horien artean, eskulturak, tornurako piezak, koadroak, muralak eta *racú*-rako piezak daude, beste batzuen artean.

'Antzuolako toponimia' liburuaren gaineko gehigarria kalean da

Kristina Pavo filologoaren *Antzuolako toponimia* liburuaren gaineko gehigarria atera du Euskaltzaindiak, eta doan eskura daiteke Euskaltzaindian, udaletxean edo liburua erosi zen liburutegian. Liburuko argazkietan "errakuntza" bat zegoela ohartu zen Euskaltzaindia, eta argazki egokiak batu ditu gehigarrian.

Horrekin lotuta, Ana Toledo antzuolarrak Euskaltzaindirako sarrera hitzaldia egingo du uztailaren 21ean, Antzuolako udaletxean, 10:30ean.

ZINEMA I

• **El reino de los cielos** filma emango dute Aretxabaletan Bihar, martitzena, emango dute film hori Herriko plazan, 22:30ean.

• **Batman begins** filma emango dute Eskoriatzan Etzi, eguaztena, izango da film hori ikusteko aukera. Herriko plazan emango dute 22:30ean.

• **Nathalie X** filma emango dute Elgetan Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

MUSIKA I

• **Makala Band** taldeak kontzertua egingo du Elorrion Makala Band taldeak musika beltza joko du hilaren 14an, egubakoitza, Elorrioko San Jose auzoan, 22:30ean. Mikel Untzuruntzaga Schmitz *Makala* musikariaren taldea da hori. Reggae, drum'n'bass, latin eta funk erritmoak batzen ditu berak.

IKASTAROAK I

• **Hiznet soziolinguistikako ikastaroa** antolatu dute Hiznet soziolinguistikako ikastaroa antolatu du Asmoz fundazioak. Euskararen egoera hobeto ulertzeko eta normalkuntzarako estrategiak finkatzeko oinarriak ematen ditu. Argibideak: 943 32 63 98.

LEHIAKETAK I

• **Film laburren lehiaketa** antolatu dute Bergaran I. Film Laburren lehiaketa antolatu du Udalak, Debagoiengan bizi den edozeinendako. Lanak bakarka edo taldeka aurkez daitezke irailaren 15era arte, kultura etxean. 300 eta 250 euroko sari bana dago, eta bergarar onenaren dako 100 eurokoa.

• **Oñatiko jaietako kartel lehiaketa** antolatu dute Herriko jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak, oñatiarrendako eta Oñatin bizi direnendako. Derrigorrezko testua hau da: *Oñatiko jaixak 2006*. Kultura etxean edo udaletxean utzi behar dira lanak. 250 eta 125 euroko sari bana emango dute.

• **Gomendatzen Dizut... sariketa** zabalik dago Gomendatzen Dizut... lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago, eta antolatzaileen, Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuen esanetan, uda da parte hartzeko sasoirik onena. Edozein oporraldiko gomendioak eskatzen dituzte. Argibideak, www.aizue.com blogean.

• **Elgoibarko kirol argazki lehiaketa** antolatu dute Kirol argazki lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak. Norberak gehienez lau argazki

aurkez ditzake, 24 x 30 cm-koak. 200 eta 100 euroko sari bana dago 16-29 urte bitarteko eta hortik gorako kategorietan. Argibide gehiagorako, deitu 943 74 44 15 telefonora.

• **III. Euskal Herriko Grafiti lehiaketa** antolatu dute Hirugarren aldiz antolatu du Topaguneak Euskal Herriko grafiti lehiaketa, eta taldeek egin nahi dituzten grafitien zirriborroak bidaltzeko epea zabalik dago abuztuaren 31ra arte. Argibideak, gazteak2@topagunea.com helbide elektronikoa.

ARGITALPENAK I

• **Oñatiko San Miguel errotaren gaineko liburua** Oñatiko San Miguel errotaren inguruko liburua argitaratu du Udal Kultura batzordeak. *El molino de San Miguel de Oñati* du izenburua, eta Jose Antonio Azpiazu eta Juantxo Madariagak idatzi dute, eta Turismo Bulegoan dago salgai.

OHARRAK I

• **Biblioporrak gida** dago udal liburutegi guztietan Ibarreko udal liburutegiek Udako Biblioporrak gida prestatu dute. Liburu eta ikusentzunezkoen 70etik gora gomendio batzen ditu. Liburutegi guztietan dago eskuratzeko modua.

Eguraldia



Bero handia egingo du gaur, baina bihartik aurrera asko freskatuko du

Eguzkitsua eta beroa izango da gaurko eguna. Litekeena da laino batzuk izatea goiz partean, baina egunak aurrera egin ahala desagertu egingo dira. 30 graduren bueltan ibiliko gara eta iluntzean zaparradaren bat egin dezake. Martitzenean, baina, erabat aldatuko da eguraldia. Laino ugari eta euria erruz

egingo du. Temperatura nahiko freskatuko da. Eguaztenean ere antzerako eguraldia egingo du: euria izango da nagusi eta temperatura fresko samar mantenduko da. Eguen eta egubakoitzean berriro egingo du gora eta eguzkia azaltzen hasiko da, nahiz eta iluntzean euria egin dezakeen.

Guardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 10	Corcuera	Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)
Martitzena, 11	Irizar	Erguin, 11 (943 79 12 39)
Eguaztena, 12	Amezua	Santa Marina, 32 (943 77 09 74)
Eguena, 13	Morasles	Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65)
Egubakoitza, 14	Ruiz Perez	Maalako Arrabala, 31 (943 79 14 09)

BERGARA

Astelehena, 10	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
Martitzena, 11	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Eguaztena, 12	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Eguena, 13	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Egubakoitza, 14	Urritikoetxea	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)

OÑATI

Astelehena, 10	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Martitzena, 11	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Eguaztena, 12	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
Eguena, 13	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
Egubakoitza, 14	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)

ARETXABALETA

Astelehena, 10	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Martitzena, 11	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Eguaztena, 12	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Eguena, 13	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Egubakoitza, 14	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIK

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06

Eskoriatza	943 71 44 07	Laixan / Oñati	943 71 63 11
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Txirritola / Aram.	945 44 52 66
Oñati	943 78 04 11		

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Antzuola	943 76 61 81
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	902 24 02 02

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hilttegia (Zubillaga)	943 78 15 12
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 71 21 17
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Idolaz / Antzuola	943 78 70 56
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	943 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 3
3 • 24 • 25 • 33 • 34 • 41
Osagarria: 14 | Itzulketa: 7

Martitzena, 4
5 • 6 • 18 • 22 • 26 • 48
Osagarria: 44 | Itzulketa: 3

Eguaztena, 5
12 • 18 • 27 • 32 • 47 • 48
Osagarria: 42 | Itzulketa: 7

Egubakoitza, 7
5 • 29 • 30 • 34 • 35 • 40
Osagarria: 20 | Itzulketa: 8

ONCE

Astelehena, 3 **96.054**

Martitzena, 4 **00.866**

Eguaztena, 5 **04.401**

Eguena, 6 **84.732**

Egubakoitza, 7 **92.649**

Kupoitzarra (103 seriea)

Domeka 9 **01.247**

Kupoitzarra (011 seriea)

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 6
1 • 9 • 17 • 29 • 34 • 44
Osagarria: 48 | Itzulketa: 8

Zapatua, 8
15 • 29 • 32 • 34 • 35 • 40
Osagarria: 42 | Itzulketa: 3

Zapatua, 8 (Saritzarra)
4 • 20 • 27 • 40 • 41
Itzulketa: 9

Gazte zerbitzuak

BEKAK |

- **Administrazio publikoa.** HAAE. Unibertsitateko tituludunei administrazio publikoaren esparruan prestakuntza osatzeko beka. Epea: uztailaren 12a.
- **Ikerketa historikoa.** Gipuzkoako Foru Aldundiak deitu ditu eta Gipuzkoako lurralde historikoari buruzko ikerketa historikoak egiteko beka dira. Goi mailako titulua dutenendako. Epea: uztailaren 14a.
- **Juan San Martin 2006.** Eibarko Udala. Hizkuntzalaritza eta Toponimiari buruzko ikerlanak. Epea: urriaren 13a.

EKINTZAK |

- **Arrasateko Sexologia Bulegoa.** Udako ordutegia izango du: astelehenetan, 11:00-13:00;

eguztinetan, 16:30-20:00 eta eguenetan, 11:00-13:00.

LANA |

- **Euskara teknikaria.** Izarra Kultur Elkarte. Haur eta gazteei zuzendutako proiektuak koordinatzeko euskara teknikaria behar da. Epea: uztailaren 12a.
- **Baso brigadako ofiziala.** Andoingo Udala. Baso brigadako ofizial/arduradun bat. Epea: uztailaren 12a.

LEHIAKETAK |

- **San Miguel jaietako kartel lehiaketa.** Oñatiko Udala. Kartelak *Oñatiko jaixak 2006* testua izan beharko du. Epea: uztailaren 15a.
- **Zumarraga eta Urretxuko XVIII. Margo Lehiaketa.** Zumarragako Udala. Urretxuko Udala. Epea: irailaren 8a.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net



Bertan salgai

ASTELEHENEKO

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Maider Azkarate-Uriarte
Uztailaren 7an, 11 urte. Zorionak, etxekoan partetik.



ARRASATE
Naia Carabias
Uztailaren 8an, urtebete. Zorionak! Familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Irati Santiago Azurmendi
Uztailaren 12an, 2 urte. Zorionak, etxekoan partetik.



ARRASATE
Ane Santa Cristina
Uztailaren 12an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Familiaren partetik.




ARRASATE
Herminia Jurado
Uztailaren 13an, 84 urte. Zorionak, *superabuela!* Bilobak.



ARRASATE
Laura Garcia
Uztailaren 19an, urtebete. Zorionak! Etxeko guztien partetik.



BERGARA
Jon Ander Rodriguez
Ekainaren 15ean, 14 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Nekane Alegria
Ekainaren 15ean, 14 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Garazi Vicente
Ekainaren 17an, 3 urte. Zorionak Garazi. Beñaten eta etxekoan partetik.



BERGARA
Ane Miren Zabala
Ekainaren 27an, 25 urte. Berandu izan arren, zorionak, etxekoan partetik.



BERGARA
Unax Garitano
Uztailaren 8an, urte bat. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak; batez ere Malen.



BERGARA
Miren Gutierrez
Uztailaren 9an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Malen Kalboetxeaga
Uztailaren 10ean, 4 urte. Zorionak! Aitaxo, amatxo eta Unax.




BERGARA
Irati Azkarate
Uztailaren 11n, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.




BERGARA
Gaizka Bilbao
Uztailaren 11n, 3 urte. Zorionak, guztion partetik; bereziki Julen eta Iker.



BERGARA
Joseba Santorcuato
Uztailaren 12an, 10 urte. Zorionak, etxekoan partetik.



BERGARA
Lander Tena
Uztailaren 14an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Markel Eguren
Uztailaren 17an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.




ARETXABAETA
Eñaut Oskoz
Uztailaren 10ean, 4 urte. Zorionak eta muxu bat. Markel eta etxeko guztiak.



OÑATI
Mireia Markuleta
Uztailaren 7an, 12 urte. Zorionak, etxekoan partetik. Gora, San Fermin!



ESKORRIATZA
Naiara Ezeiza
Uztailaren 10ean, 29 urte. Zorionak, ama! Ekaitz, Jose Mari, Ildari eta Aitz.



ANTZUOLA
Maddi Lezeta
Uztailaren 7an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



ELGETA
Igor Arizmendiarieta
Uztailaren 5ean. Zorionak, Gori. Lagunak.



ELGETA
Oier Billa
Uztailaren 9an, urtebetetzea. Beste bat gehiago! Zorionak! Lagunak.



ELGETA
Joseba Mujika
Uztailaren 10ean, urteak. Zorionak, aitaxo! Ondo pasa eguna. Lagunak.



ELGETA
Iban Retolaza
Uztailaren 15ean. Altubeko mutila ere badoa urteetan aurrera. Lagunak.



ELGETA
Haritz Gallastegi
Uztailaren 17an, urteak. Aupa, kazetari! Ondo pasa eguna. Lagunak.


Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENKO GOIENKARIAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia, eta emai zu ezusteko ederra!

Jaiotakoak



Irune Ortiz Simal
Gasteiz • 3.300 Kg. Ekainaren 26a. Jose Ortiz (Eskorriatza) eta Ana Simal (Gasteiz). Argazkian Aintzane ahizparekin.



Ibai Rodriguez Medina
Gasteiz • 4.800 Kg. Uztailaren 3a. Gurasoak: David (Arrasate) eta Laura (Gasteiz). Argazkian umea gurasoekin.



Ainhitze Kerejeta Abril
Arrasate • Ekainaren 27a. Gurasoak: Unai (Arrasate) eta Belen (Toro, Zamora). Argazkian umea aitaren besoetan.



Ane Egaña Izeta
Bergara • 3.550 Kg. Hilaren 3a. Gurasoak: Maribi (Bergara) eta Jose Luis (Bergara). Argazkian haurra kuman.



Olatz Martinez Zabala
Arrasate • 3.030 Kg. Uztailaren 4a. Gurasoak: Ane (Arrasate) eta Igor (Arrasate). Argazkian ahizpa Irati eta gurasoekin.



Igotz Gartzia-Etxabe Errasti
Aretxabaleta • 3.660 Kg. Uztailaren 4a. Gurasoak: Amagoia (Eskorriatza) eta Oier (Aretxabaleta). Argazkian amama Pakitarekin.




Ekaitz Curado Uzin
Bergara • 3.740 Kg. Uztailaren 6a. Gurasoak: Itsaso (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian umea aitarekin.



Aimar Blazquez Elortza
Oñati • 4.150 Kg. Uztailaren 7a. Gurasoak: Karmele (Oñati) eta Patxi (Oñati). Argazkian amama Mariasunekin.




Joseba Rodriguez Rodriguez
Arrasate • 3.870 Kg. Hilaren 7a. Gurasoak: Esti (Arrasate) eta Ramses (Arrasate). Argazkian umea kuman lo.



Julia Arriaran Robato
Arrasate • 3.260 Kg. Hilaren 7a. Gurasoak: Susana (Arrasate) eta Jon (Arrasate). Argazkian umea kuman lo.



Garazi Uriarte Letona
Arrasate • 3.590 Kg. Hilaren 8a. Gurasoak: Ibane (Arrasate) eta Martin (Arrasate). Argazkian umea kuman lo.



Maider Nieto Martin
Bergara • 2.880 Kg. Hilaren 8a. Gurasoak: Laura (Bergara) eta Carlos (Bergara). Argazkian umea kuman lo.



ESKELAK
ASTELEHENKO GOIENKARIAN
85 euro
943 25 05 01

ESKER ONA

Modesto Pan

Gasteizn hil zen 2006ko ekainaren 26an, 67 urte zituela.

Aita, eskerrik asko zure bihotzean sartzen lagatzeagatik. Horrela, gehiago ezagutu eta maitatu ahal izan zaitugu. Zure emaztea Estrella eta alabak, Maite eta Virginia.

Egun zail hauetan ondoan egon eta lagundu diguzuen guztioi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Arrasaten, 2006ko uztailaren 10ean.



ESKELA

Fernando Muniozguren Urkiola

(Topaguneko lehendakari ohia eta Eibarko *Itto!* aldizkariko zuzendari ohia)

2006ko uztailaren 9an hil zen, 55 urte zituela.

Euskarazko hedabideak sustatzen lankide izandakoari.

Goiena
Komunikazio Zehatzak

Bergaran, 2006ko uztailaren 10ean.



Uztailaren 10a: 094 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, uztailak 10, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

24 euro

2006 bukaera arte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa




Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Arazeli Azurmendi Txintxurreta (Bergara)
- Ion Errasti Elgarresta (Aramaio)



Uztailaren 17ko sariak



6 lagunentzako
**EUSKALTEL
EUSKADI**
taldeko 12 kamiseta.
(saridun bakoitzari 2 emango zaizkio)





Hamarrekoa

SARA COZAR | AKTOREA

"Entsalada eta guzti joaten naiz batzuetan hondartzara, eta han afaltzen dut"

Oihana Elortza

1. Aktore izan gura zenuen umetan? Ume askok bezala. Antzerki eskolan nabilela pentsatu genuen lagun batek eta biok *Goenkaleko casting*-era aurkeztea, bezperan pentsatu genuen; bi astera *Goenkale* grabatzen hasi nintzen...

2. Beti izango zara aktore? Ez dakit, baina ez dut uste. Orain oso gustura nabil aktore lanetan, baina gurako nuke beste lanbide batzuk probatu, beste gauza batzuk egin.

3. Publizitatean egingo zenuke lan? Ikus entzuzko ikasketak egin gura nituen, baina ez nintzen beharrezko notara iritsi eta Publizitatea ikasten hasi nintzen Bilbon. Lehen hiru urteak gaudituta ditut, baina laugarrenean ez naiz inoiz matrikulatu. Ez zait gustatu.

4. Ordizian edo Donostian ibiltzen zara gusturago? Ordizian eta antzerako herrietan jende gehiagok ezagutzen nau kalean; Donostian, dirudienez, ez du horrenbeste jende ikusten *Goenkale*.

5. Zer ikusten duzu telebistan *Goenkale*-z gain? Ez naiz telebistako ezer ikusteagatik etxera joaten, baina *Aquí no hay quien viva*, adibidez, asko gustatzen zait. Gogoa dut *Goenkale*-ko lehen urtean ez nuela inor ondoan gura izaten ni agertzen nintzen atala ikusteko.

6. Autografo asko sinatzen dituzu? Umeak etortzen dira, batez ere, sinadura bila. Gutxi badira, lerroren bat edo beste ere idazten diet, baina bestela, sinatu bakarrik.

7. Joaten zara hondartzara? Oso hondartza-zalea naiz, eta eguzkia egiten duenean, bai; batzuetan, gainera, entsalada eta guzti joaten naiz eta hantxe afaltzen dut, hondararen gainean.

8. Ispilu asko dituzu etxean? Bai. Asko gustatzen zait ispiluan begiratzea: dantza egiten dut, gidioiak ikasten ditut, ilea orrazten dut, belarritakoak eta gainerako pitxiak probatzen ditut...

9. Entzierroak ikusiko dituzu? Mutil-laguna Iruñeko da eta hura oso



Goenkale-ko Mimi bezala ezagutzen dute askok Sara Cozar ordiziarra. 25 urte ditu eta azken urteotan Donostian bizi da, baina astero joaten da jaioterrira, trenez, oraindik ez du-eta gidabaimenik. Eskulanak izugarri gustatzen zaizkio eta bitxiak egiten ditu, koilareak eta belarritakoak, besteak beste. Eztainua erabiltzeko ikastaroa eta larrugintzako egin ditu duela gutxi.

San Fermin-zalea da, baina ez horrenbesteraino. Zezenketak, gainera, ez zaizkit gustatzen eta jendetza ere ez, baina buelta bat egingo dut. Agian, Ojos de Brujo entzutera joango naiz, gustatzen zait talde hori.

10. Nora joango zara oporretan? Ez dakit, baina gurago izaten dut diru guztia toki baten gastatu baino, bi tokira joan: Orde-san egun batzuk eta Almerian beste batzuk, adibidez.



Biharamuna

Marijo Deogracias

Kontra-aureskua

Euskal Y-a Intercity zerbitzua izango da eta ez du ezer ordezkaturako. Helburua baditugun azpiegiturak hobetzea da". **Nuria Lopez de Gereñuk** esan du domekako egunkari baten. Eta, nire galdera: azpiegiturarik ez dagoen lekuetan, Debagoienean kasu, zer ekarriko du *Euskal Y* horrek? Ezer onik ez, seguru. Igual, horregatik onartu diote Bergarako alkate **Gallastegi** tranbiaren ibilbide berria.

Ez da erraza ulertzen udal ordezkarien jarrera. Begira **Yolanda Barcina** Iruñeko alkateak San Fermi-netako txupinazo ostein egin zuena. Konforme ez eta, bere *Biba* bota behar izan zuen. Igual egue-nean hasiko diren Antzuolako jaie-tako udal ordezkarien aureskura gonbidatu beharko genuke, girotze aldera. Ze, giroa jartzen dute bai ordezkari politikoek. Joan zen martitzenean, esaterako, Erretereriko San Markos Fuertean bazkaltzen izan nintzen eta, osteko bazkaldian **Carmelo Barrioren** estiloarekin erabat harrirtuta geratu nintzen. Hari berdin-berdin zitzaion *bachata*, Rolling ala *La Camisa Negra* entzutea. **Izaskun Bilbao** Legebiltzarreko lehendakariak, aldiz, dantzarako zaletasun handiagoa erakutsi zigun. Hura zen hura martxa! Baina gauzak ez dira beti nahi bezala izaten. Sagastiko proiektuak, esaterako, kontrako 681 sinadura izan dituen arren, Udalak aurrera egittea erabaki du. Neuk ere sinatu nuen proiektuaren kontra; aitarren urtebetetze egunean izan zen, San Juan egunez. Alferrik, ordea. Eta, eguneko aureskuaren unean kontra auresku herrikoia egingo bagenu, gure kexa azaltzeko?

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zenbakira
SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) + KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amore (Karidadeko benta) | **AMORE**
Askatasun egarri (Lin Ton Taun) | **ASKATA**
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Fermín Muguruza) | **DUB**
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**
Etsi dican mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**
Etorkizuna (Etsaiek) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | **BELAIR**
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**
Hegal egiten (Itziz) | **HEGAL**
Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**
Ilgaria (Ken7) | **KEN**
Inpernuen ate joka (Gatibu) | **INPER**
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**
Kaixo (Urtz) | **KAIXO**
Lau Teillatu (Itziz) | **ITZOZLAU**
Laztana (Lazten) | **LAZTA**
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**
Loretxoa (EXKXU) | **LORE**
Marea Gora (Itziz) | **MAREA**
Musturrek sartunde (Gatibu) | **MUSTURREK**
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**

No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**
Salve (La Polla) | **SALVE**
Sari Sarrri (Kortatu) | **SARRI**
Sorginen leizean (Exkxu) | **SORGIN**
Txatxo (Zarama) | **TXATXO1**
Txus (La Polla) | **TXUS**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bete) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantzoa) | **BAI**
Bakezaleak (Anejo Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maita (Berlito Lertxundi) | **BIZKAIA**
Eperrak (Anejo Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Osokom) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Osokom) | **EUSKALDUN**

Ez da posible (Ruper Ordoñik) | **POSIBLE**
Furra Furra (Osokom) | **FURRA**
Galziera noa (Osokom) | **GALZIARA**
Germikako Arbola (Gortzel Mendibil) | **GERNIKAI**
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**
Izarren hautsa (Kaber Leta) | **IZARREN**
Lepoan hartu ta (Pantzoa/Poio) | **LEPOAN**
Marinelaren zai (Sorotan Bete) | **MARINE**
Nere herriko neskatza maita (Lertxundi) | **NERE**
Non geratzen den denbora (Mikel Undargarri) | **NON**
O! Ama Euskal Herria (Lertxundi) | **OIAMA**
Tirakoi (Osokom) | **TIRA**
Txatxamabalnabu (Mikel Undargarri) | **TXATXA**
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
Zaindu maita duzun horri (Ruper Ordoñik) | **ZAINDU**

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiritu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaitze zure hornitzailearekin harremanetan. Altea ematea doan da eta Ki jaitziera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren altea ematea doan dira.
* Euskaratutako deitu: 900 64 02 00 telefonora. / * Vodafone deitu: 123-ra. / * Movistar deitu: 939-ra.
3. ZALANTZAK: Ez duzun zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu: 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurritan egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu: 902 01 21 48 telefonora.